


## Ulisesen itzulpena

	<p><b>Ulises</b> Jatorrizko izenburua: <i>Ulysses</i> Egilea: James Joyce Itzultzailea: Xabier Olarra Argitaratze urtea: 2022 Argitaletxea: Igela</p>
---	---

XABIER OLARRA LIZASO

### *Aurkibidea*

Sarrera

1. Dokumentazio fasea
2. Edizio oharduna
3. Barne-bakarrizketa edo kontzientzia jarioa
4. Bi erabaki eztabaidagarri
  - 4.1. 14. Episodioko grafia
  - 4.2. Femeninoaren marka
5. Tonua bilatzea: eskala dodekafonikotik harantzago
6. *Ulisesen* testua ulertzeko zailtasunak
  - 6.1. Hiztegiaren joritasuna
  - 6.2. Barne-jarioa eta collagea
  - 6.3. Hizkuntza jolasleku: itzulgaitzak eta itzulezinak
7. Molly Bloomen monologoa
  - 7.1. Monologo txundigarria
  - 7.2. Molly Bloomen monologoa, *Ulisesen* gakoa
  - 7.3. Ezaugarri formalak
  - 7.4. Itzulpen-metodologia
8. *Quandoque bonus dormitat Homerus*
9. *Ulises* zuzentzea: Sisiforen lana
10. *Ulises* eta *Odisea*
11. Bukatzeko edo Eranskinak

## Sarrera

Azken bi urteetan, Langintza Xeheki atal honexetan, gaur egungo itzultzaileen artean beren zuhurtzian, sistematikotasunean, seriotasunean eta beste hainbat tasunetan niri trainera dezente ateratzen dizkidaten bi itzultzailek idatzi dute artikulu bana: Ingeborg Bachmannen *Aldiberekoren* itzulpenaz bata eta *Oihan hitzean munduaz* bestea. Idoia Santamariari zor diogu lehenbizikoaren itzulpena eta Amaia Apalauzari bigarrenarena.

Goian aipatu ditudan alderdi horiei dagokienez, asko dugu ikasteko bai batarengandik bai bestearengandik literatur itzulpenean dihardugunok edo mundu zoragarri eta zurrumbilotsu horretan sartu nahi duen edonork<sup>1</sup>.

Honela diosku Santamariak bere artikulua hasieran:

Parisetik bueltan heldu nion, beraz, itzulpen-prozesu ororen parterik atseginenari: «dokumentatzea». Hitz larri biribil hori erabilia, neure burua zuritzen dut beti, ez baina ez sistematikoa, ez ordenatua jardun horretan, ume begiluze apatatsu bat baizik. Dena nahi dut irakurri, dena prozesatu, dena inguratu, eskuratu: biografiak, idazlearen beste lanak, haren lanari buruzko azterketak, beste hizkuntza batzuetako itzulpenak, podcastak, filmak... Edozer.

Dokumentazio-fase atsegin horri amaiera eman beharraz honela diosku, gero:

Heldu behingoz itzulpenari, tripetako korapiloa askatu nahi baduzu; bestela, segi *in eternum* Omeprazolekin.

Amaia Apalauza dokumentazio-fasean:

Woolf hizpidera ekarriz, garrantzi handia ematen zion prosaren erritmoari: Baina istorioa kontatzea konpasari jarraitzea da, geure burua erritmo bilakatzea, dantzaria dantza bilakatzen den era berean. [...] nobela bakoitzak bere erritmoa dauka. Eta, idazleak erritmo hori entzun gabe aurrera egiten badu, esaldiak herren geratuko zaizkio, pertsonaiak txotxongilo hutsak izanen dira, eta istorioa faltsua. Idazlea gai bada erritmo horri eusteko, liburu ederra izanen da (2018:238).

Nire kasua oso bestelakoa izan zen, lehenbizi itzulpenean murgildu bainintzen, eta gero dokumentatzen hasi. Izan ere, *delectatio morosa* horretan jarraitu banu, itzulpenari ekin gabe egongo bainintzen oraindik. 2012an hasi nintzen James Joyceren *Ulysses* itzultzen, erdi txantxetan, gogoratzuz hamar bat urte lehenago «afari (literario)» batean adiskide batek galdetu zuela ea noiz izango genuen *Ulises* euskaraz. Bi itzultzaile ginen muserako moduko talde hartan, eta erantzun bakarra izan zen Irene Aldasorok egin beharko zuela, *Artistaren gaztetako portreta* eta *Dublandarrak* itzuliak zituenez gero 1992an eta 2000. urtean, hurrenez hurren, eta aintzat hartuta Euskadi Saria lortu zuela azken horren itzulpenarekin. Artikulu hau idazten ari nintzela, Joseba Urteaga adiskideak gogorarazi dit beste hamar-hamabost bat urte lehenago egindako beste afari batean Céline eta Joyce izan genituela mintzagai, eta orduan ere

---

<sup>1</sup> Hemen aurkituko ditu nahi duenak artikuluko:

«Klagenfurtetik Vienara, Ingeborg Bachmann gidari: *Aldiberekoren* itzulpena».

<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/azterketak-txostenak/langintzaxeheki/idoia-santamaria-aldibereko>

«*The Word for World is Forest*etik *Oihan hitzean munduaz*: itzultzaile bat zientzia-fikzioaren oihanean».

<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/azterketak-txostenak/langintzaxeheki/amaia-apalauza-2021>

aipatu genuela *Ulises* euskaratzea noizbait norbaitek egin beharreko lana zela, baina orduan nik ez nuen ez *Ulysses* ez beste ezer itzultzen hasteko asmorik ere.

Ziur naiz *Ulysses* itzultzearena beste lagunarte askotan aipatuko zela, nolabaiteko gailur iritsezintzat hartuta, segur aski, gure «harrotasun nazionala» betetasunera iritsiko ez balitz bezala harik eta norbaitek hori lortu arte. Arestik itzuli eta Guardia Zibilaren miaketa baten ondorioz galdu izanak ere bere punttua gehitzen zion eginbeharrari<sup>2</sup>. Everestera igotzeko lehenbiziko saio hutseginarean ondoren ikurrina gailurrean jartzea lortzearen paretsukoa edo.

Hala, 2012ko ekainaren 16an, bota nuen erdi txantxetan txio bat Twitterren esanez hasiera emana niola itzulpenari, eta kalkulatzeko nuela 4 txioren karaktere-kopurua egunero itzuliz gero (500 karaktere inguru garai hartako Twitterren mugaren arabera), 2022rako buka nezakeela. Data ez zegoen gaizki aukeratua: izan ere, 2022an beteko ziren 100 urte *Ulysses*en lehen argitalpenetik, eta egile-eskubideak –zeina ez baita txorikaka argitaratzaile baten ikuspegitik, eta ni hala nintzen garai hartan– jabari publikoan egongo ziren. Lehenik eta behin, itzulpenari ekin aurretik beste inork aurrea hartua ote zidan jakin nahi nuen, eta horregatik bota nuen txio hura. Beste norbaitek hasia zuela esaten bazuen, edo lan hori aurreratua zuela, edo bukatua, lasai aski geldituko nintzen sasiarte horretan sartu gabe. Izan ere, behin baino gehiagotan gertatu izan da bi itzultzaile aldi berean elkarren berri jakin gabe liburu bera itzultzen hastea edo are osorik itzultzea.

Hona hemen twitterren lehen txioa botatzean egin nituen kalkuluak: hasieran pentsatutako erritmoan, 10 urte beharko nituen.

*1.825.000 karaktere dituela kontuan harturik, 14.000 txio beharko lirateke.*

*10 x 365 = 3.650 (egun) 1.825.000 karaktere / 3650 x 500*

*1.000 karaktere itzuliz gero, 5 urte*

*2.000 karaktere itzuliz gero, 2,5 urte*

*4.000 karaktere itzuliz gero, 1,25 urte*

*5.000 karaktere itzuliz gero, 1 urte*

(Parentesi artean: 5.000 karaktere hiru orrialde estandar eskas besterik ez dira, eta beste edozein testutako orrialde-kopuru hori egunean itzultzea ez zaio inori gehiegi irudituko, kontuan izanda egunak 24 ordu dituela, baina *Ulises*en kasuan kontu horiek ez dute balio).

Hala ere, berri hori erdi txantxetan eman arren, goizero karaktere kopuru hori (edo tarteka gehixeago) erdi serio itzultzen hasi nintzen, ordenagailurik gabe, eskuz idatziz, presaka ez ibiltzeko asmo sendoarekin, eta kontsultak paperezko hiztegi batean eginez. Zergatik mantso itzuli nahi hori? Esango nuke neronek (eta beste batzuek) lehenago egindako itzulpen askori nabari zaiela azkarregi bukatu izana –epeak, Durangoko azoka edo beste hainbat arrazoi direla tarteko–, eta hori saihestu nahi nuen oraingoan. Txioa itzultzea eta txorrotxio txotxolo hura goizero botatzea, berez, ergelkeria dexentea zen –twitter baita, seguru aski, *Ulises* emateko lekurik desegokiena– baina alde on bat izan zuen niretzat: behartu ninduen hiruzpalau hilabete zehar egunero, edo ia egunero, nire itzulpenaren lehen zirriborroa izango zena

<sup>2</sup> Ikus Jon Juaristik dioena Arestiren itzulpenekin osatutako *T.S. Eliot euskaraz* liburuaren hitzaurrean (Aresti 1983).

zatika ematera eta pixkanaka-pixkanaka aurrean neukan mendi puska horretara igotzeko zailtasunen tamainaz jabetzen hastera.

Lehen hiru episodioen lehen bertsioa hiru hilabete ingururen buruan zatika eman nuenean, twitterzaleei –eta neure buruari– atsedenalditxo bat ematea erabaki nuen, eta 2013ko urtarril inguruan, berriz, obraren itzulpenari serio heltzea. Izan ere, lehen hiru episodio horien itzulpena ez zen bereziki neketsua izan, ez lanordu kopuruaren aldetik ez itzulpenaren beraren aldetik, baina bada bigarren episodioan zati itzulezintzat jo daitekeen horietako bat, eta hori, noski, lehenbiziko abisua baizik ez zen izan, gero eta maizago agertuko ziren beste askoren aitzindari. Eta bai agertu ere! Nahi baino gehiago. Baten batek agian pentsatuko du hain zuzen ere horrek ematen diola itzultzaileari luzitzeko aukera. Nire ustez, zaila da «luzitzea» holako koska gaindiezinekin topo egitean, nahiko lan ematen baitu jatorrizkoaren paretsuko zerbaite aurkitzeak berak ere. Baina *Ulisesen* itzultzaileak ezin du aukeratu: gehienez ere, zezenaren adarkadari nondik iskintxo egin asmatzen badu, ez du suerte makala izango. Eta, hala, hor bukatu zen, zorionez, twitterren txioka aritzearena, enarek ere urtero bezala etxeko hegazpeko habiak hustu eta leku epelagoetara alde egiten duten garaitsuan.

Esan bezala, 2013ko urtarrilean epe laburragoan bukatu eta argitaratzeko asmoa hartu nuen, nahiz eta epe jakinik ezarri ez neure buruari, eta garai hartako artxiboei begiratu diedanean ikusi dut lehenbiziko 8 episodioen lehen bertsioa egina nuela 2013ko udarako. Ordurako, erabakia nuen buru-belarri arituta lana bukatuko nuela eta argitaratzen saiatuko nintzela. Urte horren hasieran, halaber, itzulpenerako laguntza eskatu zion Igela argitaletxeak Europar Batasunari, eta diru aldetik mesede izugarria izan zen argitaletxearentzat (eta baita itzultzailearentzat ere, noski, harengana bideratzeko laguntza baitzen) hura lortu izana, baina horrek ere bere morrontza zekarren berekin: kontratua sinatu eta bi urteko epean liburua argitaratu beharra zegoen. Epeak franko estutzen zituen horrek, baina alde aurretik 8 episodio horiek «eginak» izateak –kontratua sinatu arte itzulpenari ekitea galarazia izatearen arau absurduari izkin eginez, portzierto– konfiantza pixka bat ematen zidan. Artxibo zaharrei beste begirada bat emanda, ikusi dut *Ulises* osoaren lehen zirriborroa 2014ko udarako egina nuela. Beraz, urtebete inguru neukan egindakoa txukundu eta borobiltzeko. Lana epearen barruan argitaratu zen, neure burua bi urtean Karibdis baino zurrumbilo arriskutsuagoan sartuta (ustez) onik atera ondoren. Zuzenketak ia itzulpenak adina lan emango zidala aurreikusita, laguntza eskatu nien lauzpabost itzultzaileari: Joseba Urteagari, Esti Lizasori, Juan Garziari, Idoia Santamariari, Matías Múgicari, Koldo Izagirreri, Fernando Reyri eta (agian orain ahaztua dudana) besteren bati. Itzulitako atalen batzuk pasatu nizkien –adiskiderik onenari ere ez dago *Ulises* osoa gainbegiratzeko zama gainera botatzerik–, testua zer iruditzen zitzaien esateko batik bat, edo beren iradokizunak egiteko. Iradokizun franko jaso nituen, testuari zegozkionak, noski, itzulpenari baino gehiago. Reyri zor zaio, esate baterako, oharren atalak dituen 200dik gora orrialdeen testua gainbegiratu eta zuzendu izana. Juan Garziari 7., 8. eta 9. episodioak bidali nizkion. Idoia Santamariak 14.a gainbegiratu zuen. Eta Koldo Izagirrek franko lagundu zidan Molly Bloomen episodioa errematatzen. Dena dela, iradokizunik egin ez zidanak ere animoak behintzat eman zizkidan, eta inork ez zidan esan hobe nuela egindakoa zakarrontzira bota eta Jim Thompsonen nobelak itzultzen jarraitzea. Beraz, aurrera egin nuen.

Hiru urte ez da asko, baina bada marka hori hobetu duenik: Carlos Manzanok 464 egunean burutu omen du bere gaztelaniazko bertsioa, inolako argitalpen-eperik gabe lan eginda: 4.000 karaktere egunean, bi orri eta erdi estandar, beraz. Niri kosta izan zitzaidanaren erdira ekarri du



epea<sup>3</sup>. Beste muturrean italierara berriki egin den itzulpenaren egilea dugu, Mario Biondi, 1970 inguruan hasi baitzen *Ulysses* lardaskatzen, berak dioenez, eta 2020an eman baitu argitara (aurretik beste 70 itzulpen egin ondoren, autore ingeles eta estatubatuarrenak gehienak, bere burua egokitzen jota). Itzulpenari egindako hitzaurrean ez du esaten prezeski lan horri «serio» ekin dionean zenbat denbora eman duen, baina ematen dituen datuen arabera garbi dago ondo dokumentatu dela, nik hemen behean ematen ditudan baliabide guztiak erabiliz.

## 1. Dokumentazio fasea

Itzulgaia zehazki zein den erabakitzeak ez du, normalean, buruhauste berezirik ekartzen. Izaten dira eskura jatorrizkoen lehenbiziko edizio egokiak, eta, klasikoan kasuan, edizio kritikoak, ohardunak eta gisakoak ere bai, askotan. *Ulysses*, ordea, berezia da horretan ere. Lehenbiziko edizioa akatsez josia atera zen, eta akats horiek XX. mende osoan zehar argitaratutako bertsioetan ere han jarraitu dute, bai egilea bizi zelarik eta bai hil ondoren ere. Joyce bera bizi zelarik, lehenbiziko edizioan agertutako akatsen zerrenda franko egin ziren (batzuk Joycek berak berrikusiak), eta hurrengo edizioetan akats horien zuzenketa egin zen. Beraz, Joyce hil arte, edizio zuzendu horiek eta bereziki 1939an Odyssey Pressen edizioan finkatutako testua baliatu izan dute hango eta hemengo itzultzaileek. 1984an, ordea, Hans Walter Gabler adituak zuzenketa orokor bat egin zuen –5.000 «akats» inguru aurkitu zituen, gehienak puntuazioari dagozkionak–; esan beharra dago akats direla Gablerrentzat Joycek idatzi «nahi izan zuenaren» eta «inprimatu zenaren» arteko diferentziak. Eta hor dago koska: testu-kritikaren ikuspegitik ez da onargarria autore batek idatzi «nahi izan zuena» oinarritzat hartzea, baizik eta idatzi zuena. Zuzenketa orokor hori, beraz, joycezaile askok ez dute onartu, nahiz eta Gablerrek proposatutako zuzenketa asko eta asko egokiak izan, eta batzuk ezinbestekoak testua ulertu ahal izateko.

Nire eskuetara –ez dakit nola– iritsi eta osorik irakurri ahal izan nuen lehenbiziko *Ulysses* (aurretik beste bi *Ulises*, José Salas Subiraten bertsioa eta José María Valverderena, irakurtzen saiatu eta gero) Jeri Johnson andreak apailatua izan zen. Edizio oharduna, eta lehenbiziko edizioak akatsen zuzenketari arreta berezia jartzen ziona. Zorte handia izan zen niretzat edizio hori eskuratu izana, *Ulysses* itzultzea nire ametsik zoroenetan ere sartzen ez zen une batean, ez bainintzen espresuki horrexen bila joan. Egia esan, ez dakit zergatik eskuratu nuen hori eta ez beste edozein. Gerora, ordea, ikusi ahal izan dut bai espainolera, bai frantsesera eta bai italierara XXI. mendearen bueltan egin diren itzulpenen egile gehienek hori erabili dutela oinarri gisa, eta Gablerren edizioa lagungarri gisa zenbait pasartetan. Horixe bera egin dut nik, gero azalduko dudanez.

Pentsa liteke ez dagoela erabateko oztoporik hizkuntza batean irakurri eta ulertzen duguna beste hizkuntza batera ekartzeko. Hori, hala ere, erdia baino gehiago ustela duen ustea besterik ez da. Egia da zerbait itzuli ahal izateko ulertu egin behar dela lehenbizi, ezinbesteko baldintza dela testuak zer dioen ulertzea, baina hori ez da aski. Zerbait sakon ulertzeak esan nahi du itzulgaiaren esanahia ulertzeaz gain «testuingurua» ere ulertzea, eta testuinguru hori, oso sinpleki esanda, testuinguru materialaz gain testuinguru literarioa ere bada: egilearen beraren beste obrak eta aurrekoenak eta garaikideenak. *Ulysses*en kasuan, testuinguru materiala XX. mende hasierako Dublin da (eta horrekin batera Irlandaren historia osoa), eta literarioa, berriz,

<sup>3</sup> <https://www.epe.es/es/abril/20221020/he-venido-hablar-traduccion-carlos-77387997>

Odiseak ez ezik, Joyceren aurreko bi obra nagusiek ere osatzen dute, *Artistaren gaztetako portreta* eta *Dublandarrak* eleberriek, eta oro har garai horretako idazleen obrek.

Lehenbiziko pausoa, beraz, itzulgaiak «dioena» ulertzea da. Testua goian aipatutako modu ideal horretan ulertu ahal izateko lana neure indar apurrekin bakarrik egin nahi izan banu, 2022an oraindik ez nituen itzuliak izango ezta sei hilabete eman nituen lehen hiru episodioak ere, baina, zorionez, franko izan dira *Ulysses* 1970 ingurutik hona itzuli dugunoi lan hori guztia aurreratu diguten adituak. Nire kasuan behintzat, ezinbestekoa izan da Don Giffordek 1976an argitaratu zuen *Ulysses Annotated* ohar-liburu ospetsua. Bi hitz esango ditut jatorrizkoa bera baino luzeagoa den ohar-liburu honi buruz. Gifford irakasleak bizitza osoa eman zuen bere ikasleei Joyceren obrak ulergarri egiten. Lehenik, *Notes for Joyce: "Dubliners" and "A Portrait of the Artist as a Young Man"* argitara eman zuen 1967an (1982an berrikusi eta osatu zuen). Gifforden lehenbiziko ohar-liburua ez da oso handia, tamainaz. Izan ere, argiztapen edo zehaztapenak behar dituzten pasarteak –itxura batean behintzat– ez dira hainbeste. Baina *Ulisesen* kasua apartekoa da. Horregatik, Gifforden ohar-liburua, esan bezala, *Ulysses* bera baino luzeagoa da.

*Ulises* hobeto ulertzeko, beste bizpahiru liburu ere oso lagungarriak dira:

- GILBERT, Stuart (1930). *James Joyce's Ulysses: A Study*, Londres: Faber and Faber (Bada gaztelaniaz ere, Manuel de la Escalera itzulia, Juan Beneten hitzaurrearekin).
- THORNTON, Weldon (1982). *Allusions in Ulysses*, Chapel Hill: University of North Carolina Press.
- BOWEN, Zack R. (1974). *Musical Allusions in the Works of James Joyce*, Albany: State University of New York Press.

*Ulyssesi* oharrak jartzeari dagokienez, Sam Slote irakasle eta adituari eman behar zaio txapela. Izan ere, *Ulisesi* oharrak jartzea lan «potenzialki amaigabea» dela esan ondoren, eta bera ez dela azken zokoraino joan baizik eta erdi parean gelditu dela, ikusten dugu 9.000 ohar erantsi dizkiola bere *Ulyssesi*, Stuart Gilbertek, Weldon Thorntonek eta Zack Bowenek lan horietan dauden guztiak batuta baino gehiago, segur aski<sup>4</sup>.

Egilearen biografiei ere begirada bat ematea komeni izaten da beti –nahiz eta berez ezinbestekoa izan ez, aspalditxo ikasi baikenuen idazlea eta idatzia bereizi egin behar direla–, eta are komenigarriagoa da Joyceren kasuan. Izan ere, esan daiteke Joycek bere haurtzaroa eta nerabezarora eman zituela *Portretan*, eta bere gaztaro eta helduarora eta 40 urte bete zitueneko ikuspegia, berriz, *Ulisesen*, betiere kontuan hartuta *Ulisesek* errealitatetik asko duen arren –eta kasu batzuetan hiperrealismotik hurbil den arren– fikzio hutsa dela.

Lehenbizi aipatu beharrekoa Richard Ellmannen biografia da, *James Joyce* izenburua duena<sup>5</sup>.

Bide horretan, beharbada interesgarriagoa, hurbilagotik eta barrutik egin denez, Joyceren anaia Stanislausen *My Brother's Keeper* oroitzapen-liburua da; Ellmannen ikuspegi objektibotik urruntzen bada ere, inork baino hobeto ezagutzen zituen puntuak ageri dira maiz liburuan zehar.

<sup>4</sup> 12.000tik gora ohar eman ditu berriki argitara testutik bereizitako ohar-liburu batean: SLOTE, Sam & MAMIGONIAN, Marc A. & TURNER, John (2022). *Annotations to James Joyce's Ulysses*, Oxford: Oxford University Press.

<sup>5</sup> ELLMANN, Richard (1959). *James Joyce*, New York: Oxford University Press.

Oso gerora eskuratu nuen Edna O'Brien idazle irlandarraren *James Joyce*, liburu laburra, dibulgazio-tankera gehiago duena beste bi liburu horiek baino, Joyce baino gazteagoa zen emakume idazle dublindar baten ikuspegia ere izateko edo.

Alde horretatik, Joyceren emazte Nora Barnacleren biografia ere berrirakurri nuen, Brenda Maddoxek *Nora* izenburuarekin argitaratua eta aspalditxo irakurria nuena.

Biografiak egilearen obran duen eraginari buruz ari garela, kontuan izatekoa da beti Stanislaus Joyceren *My Brother's Keeper* liburuari buruz Vivian Mercierrek *The New York Times*eko erreseina batean 1958an esandakoa:

Agian liburuaren balio nagusia joycezaleentzat, eta literatur kritikarientzat oro har, honako hau da: ziurtatzen duela Joyceren fikzioa horixe besterik ez zela, fikzioa. Argibide nimenaz sekulako ondorioak ateratzen ziren. Eta Stephen Dedalus pertsonaia ilun eta goibelari dagokionez –zeina hainbeste aldiz nahastu izan baita bere sortzailearekin–, Stanislausek behin eta berriz esan zuen Jamesen irudimenaren sorkari hutsa zela Dedalus, eta ia ez zuela zerikusirik sortzailearekin, izan ere barre ozeneko mutil atletikoak «Sunny Jim» (Jim argitsu) izengoitia baitzuen. (azpimarrak nireak)

Zerikusirik ez Joycek, beraz, Dedalus bezalako poeta triste tormentatuarekin.

Molly Bloom pertsonaia Nora Barnacle duela oinarri ere maiz adierazi izan da. Esate baterako goraxeago aipatutako biografia horrek, *Nora: a biography of Nora Joyce* izenburuarekin argitaratu zenak, beste azpititulu bat dauka orain: *Nora: The Real Life of Molly Bloom*. Molly eta Nora identifikatzea dirubide da, antza.

Beste informazio-iturri interesgarri bat, garai horretako idazleen kasuan, haien gutunak izaten dira. Eta gure kasuan ere bada 3 liburukiz osatutako bilduma bat Stuart Gilbert adituak eta Richard Ellmann biografoak argitara emana<sup>6</sup>.

Horregatik, eta berez merezi duten arretagatik, komeni da *The Dirty Letters of James Joyce to Nora*<sup>7</sup> gutun likits ospetsuen azterketa. Hor aurkituko ditugu, Mollyri egotzirik, Joycek berak gutun horietan agerian jarri zituen sexuaren arloko bere obsesioak eta zenbait joera «bitxi».

## 2. Edizio oharduna

*Ulisesek* hasieratik izan du obra zaila izatearen ospea –goi-mailakoa eta gailur irisgaitza izatearekin batera–, eta, horregatik, beste askorekin gertatzen den bezala, askok dute haren aditzea, baina irakurri, gutxik irakurri dute. Nire inguruan ere asko saiatu izan dira –batzuk behin baino gehiagotan– eta bazterrean utzi dute. Esana dut neronek ere ez nuela osorik irakurri, nahiz eta oso gaztetandik behin baino gehiagotan saiatu –hasierako zatiak irensten genituen nola edo hala, eta Molly Bloomen bakarrizketa ospetsura salto egiten genuen–, harik eta *Ulysses (Edited with an Introduction and Notes by Jeri Johnson)* eskuratu nuen arte. Horregatik, abentura honetan sartzea erabaki nuenean, hasiera-hasieratik pentsatu nuen argitalpen ohardun bat prestatzea, horrek gauzak pixka bat erraztuko zituelakoan. Horrela

<sup>6</sup> GILBERT, Stuart (1957). *Letters of James Joyce*, Vol. I., New York: Viking Press.

ELLMANN, Richard (1992). *Selected Letters of James Joyce*, Londres: Faber and Faber.

<sup>7</sup> *The Dirty Letters of James Joyce to Nora*, Mariner Books, New York, 2000.

jokatzeak ez zituen testuaren irakurketak berez dituen zailtasun guztiak konponduko, baina espero nuen bide malkartsu hori pixka bat leunduko zuela.

*Ulisesek* gaztelaniara izan dituen hiru<sup>8</sup> itzulpenetatik ezagunenaren egile José María Valverdek bere itzulpenari egindako hitzaurrean esaten zuen *Ulisesen* kasuan itzultzaileak debeku zuela oin-oharretara jotzea: «*Ulisesen* itzulpena ezin daiteke izan oin-oharrez hornitua, zeren oharrok, informazio aldetik homogeneotasun minimo batez ematez gero, testuak berak baino leku handiagoa hartuko bailukete». Ez dirudi oso argudio pisuzkoa denik liburuak hartuko lukeen orri-kopuruarenak. Are gutxiago balio du orain, orririk bat ere gabeko liburu mardul askoak aise presta daitezkeenean teknologia berriei esker.

Goraxeago aipatuaz gain, itzulpena burutu bitartean, aldamenen izan nituen beste bi *Ulysses* ohardun, Declan Kiberd irakaslearena bata, *Ulysses, Annotated Student Edition*, eta Trinity Collegeko irakasle Sam Slotereana bestea, *Ulysses, With annotations by Sam Slote*. Argi eta garbi esan behar dut orain arte aipatutako lau liburu horietako oharren laguntzarik gabe (eta bereziki aipatutako azkena gabe) nire itzulpena ez zela inola ere izango irakurleak eskura duena, baizik eta itzultzaileak bere lana txukun egin beharrean, ezinbestean itzulipurdikatutako testu bat.

Bere edizioaren hitzaurrean, Sam Slotek dio *Ulises* oin-oharrez hornitzeko lana potentzialki mugagabea dela, eta, horregatik, berak nahiago izan duela behe aldetik ibili. Hala ere, ia nobelak adinako orri kopurua hartzen dute oharrek haren argitalpenean (letra-tamaina txikiagoarekin). Nik ere horixe egin nahi izan nuen, niri deigarriak eta argitu beharrak iruditu zaizkidanak bakarrik gehitu testuari, eta, aldi berean, irakurketa ez oztopatzeke, ohar horiek guztiak bukaeran jarri (ez orri-barrenean), beste hiru argitalpen ohardun horietan bezala.

Oin-oharren helburua, oro har, testua argitzea da, baina hori, noski, era askotara egin daiteke, eta horregatik era askotako oin-oharrak daude bai Gifforden lanean bai Sam Sloterean, eta ondorioz baita nire *Ulisesen* ere. Dena dela, lau sail hauetara bil daitezke: 1) Aipu eta gisakoei buruzko argibideak; 2) Pertsonaia historiko, literario eta gisakoei buruzkoak; 3) Ingelesaz aparteko hizkuntzetan dauden zatien itzulpen eta interpretaziokoak; 4) Ingeleseko zenbait hitzi buruzkoak (bereziki, hitz zaharkituak, antzinako argotekoak, Irlandako erabilera berezikoak eta abar ulergarri egiteko informazioa). Euskarazko bertsioan, 4. sailekoek ez dute lekurik, baina, sail horren orde, itzulpenaren ikuspegitik interesgarriagoa den beste bat aipatu beharko genuke: **itzultzailearen ezinen berri ematen dutenak edo itzulpen halamoduzkoen justifikaziokoak**. Horiek izaten dira, funtsean, literatur itzulpenean erabili ohi direnak, honela formulatuak, gutxi gorabehera: «Hitz-joko itzulezina, jatorrizkoaren halako edo halako hitzen homonimian oinarritua». Holakoak ere badira euskarazko *Ulisesen*. Batzuek esaten dute oin-oharra itzultzailearen porrotaren seinalea izaten dela. Pixka bat leunduz esan dezagun itzultzailearen ezintasunen edo halamoduzko irtenbideen aitorten sanoa dela. Holakoak ez dira asko ohar sail luze horretan, baina bai mordoxka bat.

<sup>8</sup> 2015ean hori idatzi nuenerako, bazen beste bat gaztelaniara (edo bat eta erdi) ekarria, eta berriki beste bat ere gehitu zaio kopuru horri: Joyce, James (2015): *Ulises* [traducción de Marcelo Zabaloy], Buenos Aires: El Cuenco de Plata. Bat eta erdi diot, zeren Salas Subiraten lehenbiziko hura «argentinarragia» zelakoan argitaratu baitzuen Planetak bertsio zuzendu bat, oharduna, «revisión y notas de Eduardo Chamorro» dioena azalean, eta «gazteleratua», antza. 2022an Carlos Manzano itzultzaile ospetsuak berriki eman du argitara berea.

Esan ditzadan orain bi hitz oin-oharrei buruz 2022ko nire ikuspegitik. Hasieratik saiatu nintzen funtsezkoak iruditzen zitzaizkidanak bakarrik jartzen, eta hala ere 2.000tik gora atera zitzaizkidan. Don Gifforden lanari jarraitu nion, oro har, eta nire lana entresaka egitea besterik ez zen izan, beharrezkoenak iruditzen zitzaizkidanak edo testua ulertzeko niretzat baliagarriak izan zirenak hautatzea, alegia. Gerora, Giffordena baino lan osatuagoa eta berriagoa denez, Sam Sloteren ohar batzuk ere baliatu nituen. Gaurko ikuspegitik, berriz, beste hautaketa bat egingo nuke (2022ko berrargitalpenean egin nezakeen, baina ez dut egin. Beraz, 2041erako utzi beharko lan hori, Joyceren heriotzaren mendeurrenerako [erantsi hemen barre-algararen emotikonoa]).

Esan bezala, aditu asko saiatu dira halako edo halako esaldi nondik «hartua» edo egokitua den argitzen, edo aipu zuzena den edo alusioek zein testutara garamatzaten asmatzen, alegia, Joycek jarritako «enigma» horietako batzuk ebatzen. Goian aipatutako Weldon Thorntonen eta Zack Bowenen liburu horiek helburu bakar hori dute: halako esaldi, poema edo kantuak norenak diren edo iturria, oinarria nahiz erreferentea zein den argitzea. Horrek, nire ustez, interesgarria izan arren, ez du interes berezirik irakurle arruntarentzat (*Ulisesen* irakurle arruntik bada), gehienez ere *Uliseszale* amorratuentzat edo irakurle biziosoentzat (halakoak, asko ez, baina bai baitira bakarren batzuk).

Beraz, labur esatearren, irakurketan ez galtzeko ezinbestekoak bakarrik jarriko nizkioke, liburua paperezko ohiko formatuan argitaratzez gero. Formatu digitalean balitz, berriz, nahi adina luza daiteke oharren atala.

### 3. Barne-bakarrizketa edo kontzientzia-jarioa<sup>9</sup>

#### 3.1. Barne-bakarrizketa, *Ulisesen muina*

Barne-bakarrizketak leku zentrala du *Ulisesen*. Narrazio-teknika hori ez da Joycek sortua, eta, aurrekaritzat asko aipa daitezkeen arren, berak aitortzen zuen Édouard Dujardin idazle sinbolista frantsesaren *Les lauriers sont coupés* liburutik hartua zuela. 1887ko nobelatxo ia ahaztu horri ez zitzaion garrantzirik eman Joycek teknika hori *Ulisesen* erabili arte, baina Joyceren adiskide Valéry Larbaud idazleak garbi adierazi zuen, *Ulisesi* 1925ean egindako hitzaurre batean, Dujardini zor zitzaiola XIX. mendearen bukaeran teknika hori (asmatu edo) erabili izana. Joycek berak ere bidali omen zion Dujardini *Ulysses* argitaratu berriaren ale bat, sinatua, esaldi honekin: «À Édouard Dujardin, annonceur de la parole intérieure,/ le larron impénitent». (Édouard Dujardin barne-jarioaren aitzindariari,/ lapur damugabeak»). «Lapurreta» hori aitortzen zuen, baina Dujardin «aitzindariaren» berri ez genuke gaur izango Joycek ospea eman ez balio.

Teknika horren erabilerak euskal nobelagintza modernoan izan duen garrantziaz lehenbizi arduratu zena Ibon Sarasola izan zen, Txillardegiren eta Saizarbitoriaren nobelagintza aztertu zuenean<sup>10</sup>.

<sup>9</sup> Badira adituen artean bi termino horien artean bereizketa egiten dutenak, hala nola *soliloquio* eta *monólogo* (*interior*) bereizten dutenak. Hemen, sinonimo gisa erabili ditut, hiru bakarrizketa horien kasuan.

Argibide gehiago nahi duenak jo beza, adibidez, hona: Lázaro & Morales Ladrón (1994).

<sup>10</sup> SARASOLA, Ibon (1975). *Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza*, Donostia: Kriselu.



Joycek barne-jarioaren teknika nola erabili zuen ulertzea funtsezkoa da *Ulisesen* erosotasunez aurrera egiteko. Izan ere, *Ulises*, funtsean, hiru pertsonaiaren bakarrizketa da, barne-jario horren aldean garrantzi izugarririk ez duten joan-etorri batzuek zipriztindua, horrela esatea zilegi bada: Stephen Dedalus, Leopold Bloom eta Molly Bloom pertsonaiena. Hiru horien burutazioen bidez ematen zaizkigu nobelaren haria, pertsonaien motibazioak, joerak eta jokaerak, barne-gatazkak eta abar.

### 3.2. Hiru pertsonaia nagusien monologoak

Luze joko luke monologo horietako bakoitzaren azterketak, baina esan dezagun gutxienez zein diren ezaugarri nagusietako batzuk:

- a) Pertsonaiarekiko egokitasuna (edukizkoa eta estilozkoa).
- b) Kanpoko munduarekiko erreakzioen adierazpena.
- c) Burutazioen «autonomia» edo kateatze ez-logikoa.

Hobeto ulertuko dugu ondoko adibideen bitartez. Hona, hurrenez hurren, hiru pertsonaia nagusien adibide bana.

Stephen Dedalus:

Ikusgarriaren modalitate saihetsezina: hori behintzat nire begien bitartez pentsatua. Hor diren gauza guztien signaturak irakurtzeko nagok hemen, itsas arrabak, itsas belarrak, hurbiltzen ari den itsasgora, bota herdoildu hori. Muki-berdea, zilar-urdina, herdoil-kolorea: zeinu koloredunak. Diafanotasunaren mugak. Baina gehitzen dik: gorputzetan. Beraz, jabetua zuan gorputz horien izateaz, are koloredun zirela jabetu aurretik. Nola? Haiekin kankarrekoka, ziur. Lasai ibili. Burusoila zuan, eta milioiduna, *maestro di color che sanno*. Diafanoaren muga barruan. Zergatik barruan? Diafanoa, adiafanoa. Bost hatzak alderen beste pasatu ahal badituk, langa duk; bestela, atea. Itxi begiak eta ikus. (*Ulises*, 49. or.)

Leopold Bloom:

Ergelak omen dituk. Esaten duguna hobeto ulertzen ditek, guk berek diotena baino. Nahi duen guztia ulertzen dik. Mendekuzalea ere bai. Zer tankera hartzen ote dit? Dorre baten altuerakoa ikusten ote nau? Ez. Jauzi batez pasa zitekek nire gainetik. (*Ulises*, 67. or.)

Molly Bloom:

Bai izan ere honek ez zinan egin halakorik lehenago City Arms hoteleko garaietatik gosaria ohera ekarrarazi arrautza pare bat bestek zerbitzatzeko erregea balitz bezala gaixo-ahotsarekin dena itxura hutsa txoratua zeukala uste zuen Riordan atso haren aurrean interesantearena egiteko eta gero xentimorik ere utzi ez ziguna dena beretzat eta bere animaren aldeko mezetarako munduan sekula izan den mixerableena beti beldurrez 4 penike likore metilikodunean gastatzeko neri bere ajeak kontatzean kontua eta xaborra franko politika eta lurrikarak eta munduaren azkena utzigun aurrena pixka batean dibertitzen emakumea Jainkoak goarda emakume guztiak béra bezalakoak balira akabo gure bainujantzi eta eskote zabalak (*Ulises*, 735. or.)



Edukiari dagokionez, bistan da Stephen Dedalusen kezkek zer mailatakoak diren: itsasoaren aurrean gogoeta filosofikoekin hasten da, itsasoaren kolorea berezkoa ote den, urari berari atxikia ala erantsia, eta Aristotelesen eta Tomas Akinokoaren filosofiari buruzko gogoetaz betea dabilkio burua.

Leopold Bloomek, berriz, emaztearen gosaria nola prestatu eta eramango dion darabil buruan, gai askoz materialagoek kezkatzen dute: zer gosalduko duen, non eta zer erosiko duen, komuneko eguneroko buelta nola egingo duen, eta, gosaltzerakoan katua miauka inguruan dabilkiolarik, haren jokabidearen atzean zer ote dagoen asmatu nahi du. Bestelako kezkek ere baditu, noski, maitaleari gutuna nondik bidali, alaba zer ote dabilen, eta abar. Baina, oro har, alde materialak gehiago kezkatzen du Stephen baino.

Molly Bloomen kasuan, berriz, senarraren jokabide bitxiaren arrazoiei buruz hasten da gogoetan, aspaldiko gertaera bat gogora ekarriz. Hortik abiatuta bere amodiozko harremani eta ezkonbizitzari errepasso osoa emango dio, hasi nerabea zelarik Gibraltarren izandako harremanetatik, Leopold Bloomekin gaztarotik helduarora izandakoarekin jarraituz eta egun horretan bertan maitalearekin oheratzean eta ondoren izan dituen pentsakizunetaraino.

Formari dagokionez, begien bistakoa da Dedalus-Bloomen eta Molly Bloomen bakarrizketen arteko aldea: lehenbiziko biak diskurtso egituratuak dira (nahiz eta elipsi eta jauzi ugari dauden haien barne-jardunean, irakurleak «bete» beharrekoak), eta Mollyrena, berriz, nahita nahasia.

### 3.3. Barne-bakarrizketa euskaraz

*Ulisesen* ageri diren bakarrizketa horiek euskaratzean itzulpenaren alde formalari dagokionez egindako aukeren eta horretarako arrazoi berri eman beharra dago.

Euskal literatura modernoaren aitzindari izan zen *Egunero hasten delako* nobelari buruzko iruzkin batean, Ibon Sarasolak zioen **barne-bakarrizketa hika egiten zela euskaraz**. Eta hala izan da, eta da, nire inguruko euskaretan. Seguru asko, baieztapen horrek ez du balio absoluturik, are gutxiago gaur egun, hitanoaren erabiltzaileak –arrazoi biologikoak eta bestelakoak tarteko– gero eta gutxiago baikara. Eta pentsatzekoa da alokutiboa erabiltzen ez duten euskaldunak zuka arituko direla eta aditz arrunta erabiliko dutela beren buruari ari zaizkionean. Artikulu honen hasieran bertan egiazta daiteke hori, I. Santamariak bere buruarekin ari dela dioenean: «Heldu behingoz itzulpenari, tripetako korapiloa askatu **nahi baduzu**; bestela, segi *in eternum* Omeprazolarekin». Are hitanoa normal samar erabiltzen dugunok ere ez dut uste beti horrela egiten dugunik.

Beraz, hitanorik gabeko bidea hartzea ere zilegi izango zen (agian zenbait irakurlerentzat irakurketa errazteko modua ere bai), baina, nolabait esateko, «bide klasikoari» atxikitzea erabaki nuen. Une horretan iruditzen zitzaidan bide horrek irakurketa zerbait erraztuko ziola euskal irakurleari. Nire arrazoibidea honako hau zen, gutxi gorabehera, *Ulisesen* lehenbiziko edizioan ageri denez:

Beste hizkuntzetan –eta jatorrizkoan– narrazioa eta barne-jarioa bereizi gabe emanak daude. Euskarazko bertsioan, alokutiboaren erabilerari esker, zehaztuta daude, barne-jarioa pertsonaia jakin bati atxikia baita zuzenean. Komeni ote zen zehaztupen hori egitea? Zilegi al zuen itzultzaileak jatorrizkoa baino haraxeago

joatea bide horretan? Ama Birjinaren birjintasunaren dogma arrazoitzeko teologia katolikoak argudiatzen zuena da nire hautua zurrizko bururatzeko zaidan argudio bakarra: *Potuit, decuit, ergo fecit* [Jainkoak, alegia], esaten ziguten. *Bere esku zuen, komeni zen, eta, beraz, egin egin zuen*. Hala egin dut, beraz, nik ere, nahiz eta «ahal» eta «komentzia» horiek zalantzazkoak izan. (*Ulises*, 10. or.)

Goraxeago esan dut nolabait ere alokutiboaren erabilera «klasikoari» atxiki natzaiola, eta, beraz, hau izan dela nire jokabidea:

1. Esaldi nagusietan bakarrik erabiltzea:

Egin ere egin dik. (399. or.)

Konturatu al haiz emakumeek, idazten dutenean, puntuazioa eta letra larriak alde batera uzten dituztela? (Joyce anaiarekin hizketan)

2. Galderazko eta menpeko perpausetatik baztertzea (baldintzazkoak barne, jakina):

Birjinak erotu egiten dituk azkenean, nik uste. Nola zuen izena? (388). or.

3. Kausal «faltsuetan» bakarrik bide ematea alokutiboari:

...bele-ahotsa dik eta. (385. or.).

Badakit gaurko erabiltzaile askori hitanoa galderetatik eta baldintzazkoetatik baztertzea gehiegikeria irudituko zaiela, edo hizkera «natural»etik aldentzea («beti hala egin diagu-eta» argudiatu zidan erabiltzaile «natural» batek). Hala ere, erabilera klasikoari atxiki natzaio hor.

Bakarrizketaren itzulpenari buruz hartutako erabakiari dagokionez, honako hau nioen 2015eko hitzaurrean:

Molly Bloomen bakarrizketa ospetsuan ere alokutiboa erabili dut, baina, kasu horretan, Mollyk **noka** egiten dio bere buruari, nik hala erabakita. Ortodoxoenek beharbada esango dute bakarrizketa horrek, Molly bere buruari zuzenean ari denean salbu, **toka** behar duela. Baliteke. Baina, kontuan izanik Molly momentu horretan, goizeko ordu txikietan «bere buruarekin *mano-mano* ari denean» Leopold Bloom aldamenen duela, toka egingo balu, senarrari ari zaiola emango luke. Eta horrek, noski, diskurtsoaren funtsa aldatuko luke, ezinbestean. Ez dakit behar adinako argibidea irudituko zaien puristei, baina oraingoz horrela geldituko da. (*Ulises*, 10. or.)

Hori izan zen erabaki ez-erabat-ortodoxo hori (Mollyk bere buruari noka egitea *denbora guztian bere buruari zuzenean ari zaiola interpretatuz*) hartzeko aurkitu nuen «azalpena» (edo justifikazioa, nahiago baduzue). Gaiari bete-bete heldu gabe, alde funtzionaletik heldu nion. Erabakia euskaltzain-andre bati kontsulta egin ondoren hartu nuen, eta gerora ikusi dut izan zela horri buruz eztabaida bat 31 *eskutik* blogean<sup>11</sup>. Hala ere, iritsi zait ikuspegi hori (erabilera ez-markatua hitanoan toka dela) ez dela erabat onartua, eta emakumeak bere buruari noka egiten diola are erabilera ez-markatuan. Ni baino hizkuntzalari adituagoen esku utziko dut

<sup>11</sup> <https://31eskutik.eizie.eus/2013/12/16/emakumeak-bere-buruari-nola/#comments>

Edo horrekin aski ez duenak jo dezala Xabier Alberdiren artikulu honetara: «Hitanoa non eta nork erabiltzen duen» (*Euskera* aldizkaria, Leioa, 1994.10.04).

kontua. Gaian sakontzeko hor ditu irakurleak 31 *eskutik* blogeko iritziak edo Xabier Alberdiren tesia.

Dena dela, arazo hori ehun urte barru berez konpondua izango da, segur aski. Euskararik eta *Ulisesen* berritzultzaierik bada, ez dut dudarik monologo horiek zuka egingo direla, eta horrela itzulpen balizko hori fidelagoa izango dela jatorrizkoarekiko. Eta, bide batez, toka/noka polemika aurreko mendeko gizarajo punttalakurloen kontua bihurtua izango da.

Behin erabaki hori hartuta, Mollyk bere buruari noka egitearena, lana asko erraztu zitzaidan; izan ere, aski nuen nire ama edo izeba bat bere ahizparen batekin hizketan imajinatzea (ohikoena zen nire belarrarian, beti hala egiten baitzioten elkarri nire amak eta haren bi ahizpek), tonua aurkitzeko. Edukia, jakina, ez zen haien ametsik edo amesgaiztorik gaiztoenetan ere agertzen saiatuko, baina tonua horixe iruditu zitzaidan.

## 4. Bi erabaki eztabaidagarri

### 4.1. 14. *episodioko grafia*

Honela nioen 2015eko argitalpeneko hitzaurrean:

Alde ortografiko eta gramatikalari dagokionez, argibide batzuk eman beharrak dauzkat, irakurketari ekin aurretik irakurleak informazio pixka bat izan dezan testu honetan aurkituko dituen berezitasun batzuei buruz. Testua, jakina, euskara batuan idatzia da, eta Hiztegi Batuaren arabera osatua. Hala ere, 14. episodioan – Joycek ingelesezko prosazko zenbait testuren *pasticheak* egin zituenez, hasiera-hasierakoetatik hasi eta XX. mendekoetaraino–, Etxepare eta Leizarragarengandik hasi eta gure egunetako idazmolde eta mintzamoldeetarainoko bidaia egiteko ausardia izan dut, eta, horregatik, garai bateko grafiak aurkituko ditu irakurleak episodio horretan.

Esan bezala, episodio horretan jauzi handi bat dago, estiloari dagokionez. Atal hori sakon aztertu dutenek diote 9 atalez dagoela osatua, eta bakoitzean autore edo idazmolde (edo mintzamolde) baten parodia egiten dela. Gaztelaniazko eta frantsesezko itzulpenetan, episodio hori itzultzean bi joera nabari dira: nolabaiteko kutsu arkaiko bat ematen dioten itzulpenak (Valverde) edo ildo horretan joera berdina erakutsiz diakroniari leku gehixeago ematen diotenak (García Tortosa eta Venegas Lagüens). Aipatzekoa da frantsesezko itzulpen berrian (Aubert *et alii*) ez dutela berriro itzuli episodio hori, baizik eta **lehenbiziko ediziokoa utzi dutela** (Auguste Morelena), ez dakigu zergatik: aurreko itzulpena egokitzat jo dutelako edo omenaldi gisa hala uztea erabaki dutelako.

Episodioak haurgintza-etxe bat du gertalekua, non baitago Purefoy andrea bertara erditzera joanda. Badaramatza bertan hiru egun umea egin ezinik. Eta horren adierazpide formal gisa, Joycek ingelesezko prosaren garapena islatzeko moduko 9 *pastichez* osatu zuen episodioa. Latinezko prosaren imitazio estuan egiten ziren testuetatik hasi eta XX. mendeko mintzamoldeetaraino. Kopurua, bistan denez, ez dago aliritzira aukeratua. Eta Joycek berak ere aitortu zuen episodio hori osatzeak eman ziola lanik handiena *Ulises* idaztean<sup>12</sup>.

<sup>12</sup> BUDGEN, Frank (1934). *James Joyce and the Making of Ulysses*, Londres: Grayson & Grayson.

Euskaratzean nire asmoa zen jatorrizkoan nabari diren aldeak itzulpenean ere agertzea. Modurik errazena –zenbait irakurleri gozakitza egingo zitzaiola jakin arren– antzinako grafiak mantentzea iruditu zitzaidan. Horrela aise nabaritu zen XVI. mendeko testuetako grafiatik hasi eta gaur egunekoetarainoko bidaia. Bestalde, pentsatu nuen irakurle balizkoa horraino iritsia baldin bazen aise irentsiko zituela grafia eta molde arkaikoetan idatzitako dozena erdi bat orrialde. Eta, itzulpen-metodologiari dagokionez, lehenbizi edukia bera gaurko moldeetara ekarri, eta gero «arkaismoz janzea» izan zen, alderantzizko bidaia eginez, nolabait. Horretarako, Etxepareren poemak eta Leizarragaren *Testament berria* grafia zaharretan irakurtzen eman nituen igande arratsalde batzuk, molde horietaz blai egiten neure begibelarriak, molde estandarrean egindako itzulpena «zaharkitu» arren testu natural samarrak lortzeko asmoz. Gauza bera egin nuen, gero, XIX. mendeko eta XX.eko batzuekin. Baina, noski, azken horiek hurbilagokoak zitzaizkidan: Txomin Agirre edo Olerkariak, Aresti eta Mirande, edo gaur egungo gipuzkerazko edo bizkaierazko mintzamolde batzuk. Hor ere banituen ereduak, Saizarbitoriaren hasierako nobelak edo Koldo Izagirrearen *Zergatik bai*, besteak beste.

Hala ere, esan beharra dut parodia horiek barne-koherentzia osoz egitez gero, beste urtebete gutxienez eman beharko nuela episodioa osatzeko (idazmolde horien azterketa sakona egin, ezaugarri nagusiak bereizi, eta paralelismoak nola egin erabaki), eta ezin izan nuen horrenbeste egin, baizik eta nolabaiteko paralelismo orokor batzuekin konformatu.

Orain Interneten hain ugari diren *Ulises*-irakurtzeko-aholku-maileren batek dio episodio osoa neketsu egiten bazaio irakurleari berdintsu diola paso eginda hurrengora joatea. Joyceri, segur aski, sakrilegioa irudituko zitzaion. Baina bistan da: testua, behin argitaratuz gero, irakurlearena da.

## 4.2 Femeninoaren marka

Bigarren erabaki eztabaidagarriak ez du zerikusirik aurrekoarekin, honako hau ere grafiari dagokion arren. Hau zioen 2015eko edizioko hitzaurreak:

Bestalde, euskarak badu «gabezia» bat, itzultzaileok aspaldi samar sumatua baina inoiz konpondu ez duguna, segur aski gure ahalmenetik kanpokotzat hartu izan dugulako. Genero-bereizketaz ari naiz, gramatikalaz, noski. Euskarak, oraingoz, ez du modurik (generoari dagokionez) gure inguruko hizkuntzek berez egiten dutena izenordain soilez bereizteko: *he/she, él/ella il/elle...* Kasu horietan, nola edo halako konponbide batera jo behar izan dut, eta erabaki dut emakumezkoaren marka azentu bat izatea: *hura/húra* edo *bera/béra* erabili ditut, beraz, «deklinabide» osoan. Hautu horretan arrazoi literarioek izan dute linguistikoek adinako indarra. Izan ere, kasu askotan, *Ulisesen* beraren barne-kodearengatik, ez zegokion itzultzaileari zehaztea idazleak zehaztasun gehiago gabe *he/she* bidez izendatzen zuena nor zen. Baina, beste alde batetik, jatorrizkoak ematen duen informazioa baino gutxiago ematea ere ez zuen zilegi, eta hori izan da aurkitutako erdibidea, edo gaitzerdiko soluzioa, nahi baduzue. Irakurleak esan beharko du erabaki hori lagungarria ala trabagarria izan zaion.

Bereizketa hori egiteko azentu-marka erabiltzeak kanpo uzten zuen erabilera erreflexiboan marka hori erabiltzea, *bere* eta *beren* izenordainek garbi uzten baitute erreferentea zer den,

gizonezkoa ala emakumezkoa, baldin eta erabilera ez-erreflexiboan beti *haren/háren* eta *beraren/béraren* baliatzen badira.

Horrelako «proposamen» ausartegiak inon lekurik izatez gero *Ulisesen* izango zuela pentsatu nuen, eta ondorengo itzulpenetan izan dut bide horretatik jarraitzeko tentazioa, baina ez behar adinako ausardia. Soluzio praktikoa dela ez dit inork ukatuko, eta zerbaiten premia badagoela ere askok aitortuko dute, baina konponbide zaila duen arazoa da, antza.

Esate baterako, lerro hauek idazten ari naizela, gai honekin loturiko kontu pare batekin egin dut topo: *Poetandreak literatura greko-latindarrean* liburua eman du argitara Maite Lopez Lasheras itzultzaileak, eta «Ni ez naiz funtzionario (ministro, tenplario...)» artikulua Bakartxo Arrizabalagak 2022ko *Senezen*.

Badirudi Euskaltzaindiak joera ez-bereizlearen alde egin duela generoz hitz femenoak direnen kasuan: ez dugu aurkituko *poetandrerik* Euskaltzaindiaren Hiztegian, ez *aktotesarik*, ez *ertzaintsarik*, eta tradizioa duten hitzak berak ere, hala nola *artzaintsa* edo *alarguntsa*, bigarren aukera dira Elhuyar hiztegiaren, edo *Ipar*. marka dute Euskaltzaindiaren Hiztegiaren. Haizeak, beraz, ez du jotzen bereizketaren alde. Animaliek zorte hobea izan dute, eta hor ditugu *astarrak* eta *astemeak* bereizita. (Gaur bertan jo dut Miranderen poemetara, eta hantxe ageri da *aphez-eme*. Orotarikoa ere jasota dago. Ez ordea EHN, hor nahiago izan dute *emakume apaiz*).

Oso pozik agertzen gara euskarak, gaztelaniak eta frantsesak ez bezala, *los vascos y las vascas*, *los niños y las niñas*en gisako bikote astunak erabili «behar» ez izateaz, baina aipatu dudan beste arazo hori ere hor dago, eta hor jarraituko du geroan ere, nik *Ulisesen* emandako irtenbidea arren.

## 5. Tonua bilatzea: eskala dodekafonikotik harantzago

Amaia Apalauzak prosaren erritmoaren garrantzia azpimarratzen digu V. Woolfen aipu baten bidez. Ez dago zalantzan jartzerik Woolfek dioena, eta idazleak erritmoa markatu edo indartzeko hainbat baliabide ditu: hitzen eta esaldien luze-laburrak, pausaldiak ezartzeko puntuazio-markak, esaldien arteko konektoreak, etab. Baina itzultzailea, hor, bestek ezarritako erritmoaren mirabe da, eta horretara egokitzen saiatu beharko du. Eta horrek ere lanak ematen ditu, batez ere gure kasuan, ingelesa bezalako hizkuntza monosilabozale batetik joera hori hain markatua ez duen beste edozeinetara pasatzean.

Baina hemen beste kontu bat aipatu nahi dut, tonu egokia bilatzearena. Musikan, izan ere, erritmoa bezain garrantzitsua da doinua. Eta ez dut esango *Ulisesen* ageri zaizkigunik Queneauren *Estilo-ariketa* ospetsuetan ageri diren adina bariazio, baina bai aski nabarmenak diren zenbait. Esate baterako hor ditugu, izugarri nekatu gabe, aise suma ditzakegun hauek:

- Narratzailearen tonu neutroa (Joyce *Ulisesen* narratzailea ezabatzen saiatzen denez, ez da oso maiz ageri, baina bai hasieratik, eta 10. episodioa (egoeraren laburpena egiten duena) osorik da narratzaile «oroikusle» baten tonu aski neutroan emana)
- Stephen Dedalusen eta Buck Mulliganen tonu jaso (1., 2. eta 3. episodioetan)
- Leopold Bloomen tonu arrunt eta orekatua (4. episodiotik hasi eta nobelaren azken kapituluetaraino mantentzen dena)
- Kazetarien eta kazetaritzako estilo «nabarmenzalearen» eta tonu hanpurutsuaren parodia (7. episodio osoa)

- e. Tonu jaso azken muturreraino eramana (9. episodioa) literatoen eztabaidan
- f. Herri xehearen elkarrizketako tonu arina (12. episodioan nabaria, batez ere)
- g. Antzerkiko tonu deklamatorioa (15. episodio osoan)
- h. Eta horiez gain aipatu beharko genituzke 14. episodioko *pastische*etako 9 idazle edo joera parodiatuen tonu desberdinak<sup>13</sup>. Dirudenez, George Saintsburyren liburua erabili zuen Joycek idazleen parodiak egiteko. Hor aurki omen daitezke, besteak beste: latinezko arao-hitzez osatutako sarrera misterioetsutik hasita, Salustio-Tazitoren estiloko prosarena, Erdi Aroko latinarena, Everyman izeneko antzerkiarena, Malory, Defoe edo Dickens eta beste hainbat idazleenetaraino<sup>14</sup>.
- i. 17. episodioko (Itaka) hizkera denotatiboa (zientziarena) eta doktrinaria (kristautodtrinaren parodia)
- j. Molly Bloomen tonu suhar eta lotsagabea (18. episodioa)

## 6. Ulisesen testua ulertzeko zailtasunak

### 6.1. Hiztegiaren joritasuna

Wikipediara joz gero, bertan aurkituko ditugu *Ulisesi* buruz maiz egiten diren hainbat galderaren erantzunak: zenbat hitzez osatua dagoen (eta zenbat hitz ezberdinez), irakurtzeko zaila den, edo zenbat denbora behar den irakurtzeko.

Hor ematen diren kalkuluen arabera, *Ulysses* 266.690 hitzez osatua dago, eta horietatik 32.485 hitz dira ezberdinak (elkarren artean). Molly Bloomen monologoa, esate baterako, 24.183 hitzez osatua da, zeinetatik 3.631 diren ezberdinak. Mendeurreneko edizioaren aurkezpenean 30.000 hitz ezberdinez osatua zela esan nuenean, bertan zirenei gehiegi iruditu zitzaizkien. Baina gaur egun eskura dauden UWC kontagailuak (Unique Word Calculator) erabilia, antzeko datuak lortzen dira (hor goian eman ditudan bezalatsukoak, alegia). Wikipedian bertan beste bi galdera horiei honako erantzun hauek ematen zaizkie: zaila izatearen ospea arren, **ez omen da oso zaila** irakurtzeko, eta 13 ordu eta 3 minutuan irakur omen daiteke (250 hitz minutuan irakurrita). Ni lehenbizikoz saiatu nintzen garaian, esaten zuten nobelak irauten zuen adina denboran irakur zitekeela: 20 ordu inguru, beraz.

Hitz ezberdinen kopuruari buruz erreferentzia bat izateko, honako datu hauek lortzen ditugu Agatha Christieren *The Mysterious Affair at Styles* edo *4:50 From Paddington* nobelak kontagailuan sartuta: lehenbizikoa 57.038 hitzez osatua da, zeinetatik 6.483 baitira ezberdinak, eta bigarrena 66.508 hitzez, zeinetatik 6.505 baitira ezberdinak. Datu horiek guztiak gutxi gorabeherakoak dira, baina balio digute ideia bat egiteko.

Baina kontua ez da bakarrik *Ulysses*en aurkituko ditugun hitz ezberdinen kopurua, baizik eta kualitatiboki nola dagoen osatua Joyceren «hiztegia». Izan ere, euskaraz ez dugu hitz «faltarik» (Elhuyar hiztegiak, esate baterako 91.000 sarrera, 23.000 azpisarrera eta 153.000 adiera zituen 2013ko edizioan). *Ulisesen* itzultzaileak aipatu 30.000 horien ordainak baizik ez ditu behar, baina hor dago koska, hain zuzen ere. Ez da beti erraza ordain egokirik aurkitzea. Zergatik?

<sup>13</sup> SAINTSBURY, George (1912). *History of English Prose Rhythm*, Londres: MacMillan and Co.

<sup>14</sup> JANUSKO, Robert (1983). *The Sources and Structures of James Joyce's "Oxen"*, Ann Arbor, Michigan: UMI Research Press.



Joycek, batetik, hizkuntzaren apoteosia dei dezakeguna lortu nahi zuen *Ulisesen*, eta aldi berean bere artearen sekulako erakustaldia egin, beste ezein nobelaren antz handirik ez zuen artefaktu berri bat osatuz. Horretarako, eskura zeukan guztia erabili zuen, gehiegi kezkatu gabe irakurleak ulertuko zuen ala ez, episodio bakoitzean egoki iruditzen zitzaizkionak sartuz. Horregatik, nonahi aurkituko ditugu, besteak beste, testuari zailtasuna ematen dioten honelako elementuak:

- a. Arkaismoak
- b. Hibernizismoak (Irlandako ingelesaren<sup>15</sup> hitz edo esapideak)
- c. Argotak
- d. Hitz «gurutzatuak»

Horrela sailka ditzakegun hitzak (eta esapideak) testu osoan zehar aurkitu badaitezke ere, ez daude berdin banatuta episodio guztietan. Esate baterako, 3. episodioan (Proteo) filosofiaren arloko argota aurkituko dugu, 7.ean (Eolo) kazetaritzakoa edo inprimatzailetzakoa, edo 9.ean (Eszila eta Karibdis) literatur kritikakoa. Hibernizismoak, berriz, ugariago aurkituko ditugu 12.ean (Ziklopea), eta sailkapen horretako «anomalía» horien guztien apoteosia 14.ean aurkituko dugu (Eguzkiaren behiak).

Zorionez, gaur egungo itzultzaileak ez du hiztegi hiztegi ibili beharrik testua ulertzeko. Izan ere, lan hori aurreratua diote *Ulisesi* oharrak jartzen aritu direnek. Eta batzuetan eztabaidagarriak izan arren edo azterketa berriagoetan aspaldiko ordainak aldatu eta zuzentzen diren arren, ez dago dudarik ezinbestekoa dela gidari horien laguntza izatea. Horregatik, ez du bilaketan ibili beharrik izango bukaeran ematen ditudan hiztegi berezi horietan.

Gehiegi ez luzatzearen, aski izango dugu adibide bat: *bother* hitza. Ingeles ohikoan *bothered* = *aspertua* dugu. Baina Irlandako ingelesez hitz horrek bi adiera ditu: ohikoa, *bothered* = *aspertua* eta *bothered* = *sorra, gorra* (irlanderatik hartua). Eta hitz hori 11. episodioan agertzen denez (Sirenak), gogora dezagun *Odisean* Ulisesek bere adiskideei belarriak butxatzeko agintzen diela Sirenen ahotsa ez entzuteko. Beraz, Joyce bi esanahi horiekin adarra jotzen ibiliko zaigu episodio osoan zehar, eta baita gero 15.ean ere.

*Ulises* ulertzearen zailtasunari dagokionez, bada beste mito bat, egiatik gutxi duena: Joycek hitzak asmatzen zituela, eta horregatik berak bakarrik zekiela zer esan nahi zuten. Ez da egia, baten bat asmatu omen zuen, baina batez ere hitzak bihurrikatu edo hibridatu zituen. Esate baterako, aipagarria da ondoko adibidean nola sortu dituen ingelesezko hitz «berriak» alemanezko edo italierazko erroak erabiliz:

Emakumeak bere zama zeramak, *schleppeatzen* dik, herrestatzen, arrastatzen, *trascinatzen*. (*Ulises*, 60. or.)

Ikusten dugunez, hurbilago zaigun euskañolaren moduko bat da emaitza, baina esanahia begi-bistakoa da eta hor ez dago benetako hitz-sorkuntzarik. Joera hori (hitz-bihurriketa eta gurutzaketa bidezko mestizoak sortzea) *Finnegans Waken* eraman zuen azken muturreraino, baina ez da askotan gertatzen *Ulisesen*. Maizago egin zuena beste hau izan zen: ingeles

<sup>15</sup> Batzuentzat, ingelesaren dialektoa da Irlandako ingelesa. Ikus, esate baterako, *English As We Speak It in Ireland* (P. W. Joyce 1910).

estandarrean banakaturik idazten ziren hitzak elkarturik idatzi. Esate baterako: *sea change* > *seachange*. Edo *loglady*, *glasscase*, eta beste hainbat.

Hitzen eremutik haraxeago joanda, esaldi eta esapideen lurralde irristakorragoa dugu, eta bereziki Irlandako gaelikoarekin zerikusia dutenena. Testua horrelakoez zipriztindua dago, baina, esan bezala, ez daude berdin banatuak episodio guztietan. Irlandako hizkuntzari edo irlandar nazionalismoari dagozkionetan (1.an eta 12.ean) maizago agertuko zaizkigu besteetan baino, eta franko esanguratsuagoak dira. Gisela Zinggek, hala ere, harrigarritzat jotzen du halakoen ugaritasuna 15. episodioan, hain zuzen ere Bloom haluzinazio artean dabilenean<sup>16</sup>.

Baina agian adierazgarriena (edo itzultzaileari txundigarriena egiten zaiona) lehen episodioan gertatzen da, Martello dorrean Mulligan, Stephen Dedalus eta Haines daudela esnezalea etortzen denean.

Lehenbizi, gaelikotik hitzez hitz zuzenean itzulitako esaera edo metaforak agertuko zaizkigu, esate baterako *silk of the kine* = *Síoda na mbó* = *Abelgorriaren zeta* eta *poor old woman* = *Sean bhean bhocht* = *Amandre gaixoa*. Euskarazko edizioaren oharrean argitzen da bi horiek Irlandaren sinboloak direla.

Baina, gero, esaldi bitxi bat dator, testuinguruak garbi uzten duena baina oso arrotza egiten zaiguna. Izan ere, forma aldetik substratu gaelikoaren bidez bakarrik uler baitaiteke sakonean, edo, nahiago badugu, gaelikotik hitzez hitz itzulia dela ulertuta.

Hau dugu esaldi itxuraz inuzentea: *Is there Gaelic on you?* (ikus 1. eranskina).

Testuinguruak garbi uzten du Buck Mulliganek zer galdetzen dion esnezaleari: «Badakizu irlandaraz?» Eta Sam Slotek dio galdera hori ingeles normalean (are Irlandakoan) honela eginga izango litzatekeela: *Do you speak Irish?*. Zuzeneko itzulpen okertzat jotzen du, gainera, Joyceren galdera. Eta, formula horren erabileraren sakontasunetan gehiago barneratu direnek diotenez, Irlandarazko formula edo egitura hori norbaitek gaixotasunen bat ote duen galdetzeko erabiltzen denaren berdina omen da. Eta errezeloa dut nonbait irakurria ote dudan hau ere: agian Espiritu Santuak apostoluei emandako «hizkuntzen dohainak» (haien buruen gainean su-mihi batzuen forma hartuz) ere izan lezakeela zerikusirik formularen bitxitasunean. Eta *on* horrek konnotazio gehiago ere izan ditzake agian; esate baterako, hizkuntza norberak gainean eraman beharreko «zama» edo «ardura» gisa ere uler liteke.

Dena dela, itzultzaileak ez du arazorik esaldi hori «ulertzeko». Baina erabaki beharko du zentzu orokorrari bakarrik atxiki ala azaldutakoaren araberako ñabarduraren bat eman (ikus 1. eranskina).

## 6.2. Barne-jarioa eta collagea, Joyceren teknika nagusiak

Zailtasunen alde handi bat *Ulisesen* erabilitako bi teknika nagusien ondoriozkoa dela iruditzen zait. Biak oso loturik daude, nire ustez. Izan ere, nola agerrarazten dute pertsonaiek beren burua? Beren pentsamenduen jarioaren bitartez. Esaten edo egiten dutenak baino garrantzi handiagoa du Joycerentzat buruan zer dabilkien edo zer darabilten agerian jartzeak. Baina zer gertatzen da pentsamendurekin? Ez diola eskuarki kate logiko bati jarraitzen. Gehienetan, jauzi egin ohi du batetik bestera. Eta horrek txunditu (aspertu, nazkatu) egiten du

<sup>16</sup> Zingg 2005: 201.

irakurlea eta zailtasunak ezartzen dizkio itzultzaileari, sarri askotan testuingurua ezabatzen baitio. Eta esaldiak testuingururik gabe interpretatzea ez da lan erraza. Pertsonaiak beste batzuekin hizketan ari direnean, arrazonamendu logikoa erabiltzen dute eskuarki, baina pentsamenduan bide hori ere erabiltzen den arren, askoz gehiagotan aurkituko ditugu *Ulisesen* zehar itxuraz elkarrekin loturarik ez duten ideiak, anakolutoak, jauziak eta «xelebrekeriak».

Horri loturik dago *collagearen* teknika. Esaten dute episodio batzuen idazketan ontzat emandako «kopia garbi» batetik %30eko emendioa dagoela argitaratu zen testura, Joycek bere testua zuzentzerakoan oso gutxitan ezabatzen baitzuen ezer, eta aldaketak ia beti izaten omen baitziren zerbait gehitzeko. Gehikuntza horiek testua berrirakurri ahala egiten zituen, testuak berak iradokitzen zion zerbait bururaturik. Eta hori (itxuraz) inolako loturarik ez zuten izen berezi, esaldi edo burutazioak besterik gabe bertan itsatsiz egiten omen zuen, irakurleari utziz azkeneko orduan sartutako aldaketek aurrekoarekin eta ondokoarekin zer lotura zuten asmatzeko lana. Eta hori are inprimategiko proben gainean egiteko ohitura omen zuen, galeraden gainean, alegia. Inprimatzailearen desesperaziorako, noski. Baina horrek bost axola zion berari. Phillip F. Herring irakasleak aztertu ditu British Museumen gordetzen diren idazketa-oharren orriak, eta honela diosku:

*Ulysses* ez zen idatzia izan «hasi eta buka», modu logiko eta sekuentzialean; hemezortzi episodioetako bakoitza etengabe berrikusi eta emendatu zuen egileak (ia inoiz ez murriztu), hasierako zirriborrotik 1922ko otsailaren 2an argitaratu zen arte. Joyceren metodoa arretatsua eta zorrotza zen; ez zen inoiz asebeterik gelditzen idazten zuen ezerekin<sup>17</sup>. (azpimarrak, nireak)

Idazteko metodo hori mosaikogilearenarekin parekatu dute zenbait ikertzailek, teselak etengabe itsatsiz bere mosaikoa osatzen duen langile nekaezinaren metodoarekin, alegia. Horregatik esaten dute Joycek ez zuela bere eskuizkribua inprimatzeko ematen, baizik eta inprimatzaileek eskuetatik atzaparkadaz «kentzen» ziotela. Horren ondorioz, esate baterako, azken probaren gainean 12. episodioko (Ziklopea) izen-zerrenda harpajotzailean «Borus Hupinkoff» gehitzeko agindu omen zuen azkeneko orduan. Baina inprimatzaileak «*Trop tard*» oharra gehitu omen zuen galeradako testuaren alboan, alegia, zuzenketa-agindua beranduegi heldu zela, eta ezin izan zuela sartu inprimatzeko testuan (aldaketak egitea ez zen gaur egungo maketazio-programekin bezain erraza). Beraz, zuzenketa horrek 60 urte itxaron behar izan du kontuan hartua izateko. Bitartean argitaratu diren *Ulisesek* izen hori falta dute. Eta geroztik argitaratuetan, batzuek «Borus Hupinkoff» (Project Gutenberg) sartu dute eta beste batzuek «Boris Hupinkoff» (Jeri Johnson, eta horri jarraituz euskarazkoak). Ez dakigu non oinarritzen den diferentzia hori, baina bi modu horietara ageri da aipatutako bi bertsioren horietan.

### 6.3. Hizkuntza jolasleku: itzulgaitzak eta itzulezinak

Aspaldidanik teorizatua da den-dena ez dela itzulgarria. Zuzenean behintzat. Eta kasu batzuetan ezta zeharbidez ere. Esate baterako, beti aipatzen dira alor horretan:

1. Poemak, kantikak eta abar, batik bat neurridunak izanik neurri berean eman nahi badira (bazterrean utziko dugu poesiaren itzulgarritasuna)
2. Hizkuntza bateko esamoldeak, esaera zaharrak, argot edo jargoak

<sup>17</sup> JOYCE, James (1972). *Joyce's Ulysses Notesheets in the British Museum*, Charlottesville: University Press of Virginia.

3. Hitz-jokoak edo hitz-jolasak
4. Hizkuntza jakin bateko hitzetan oinarritutako txistekak.

Adibide batzuk baizik ez ditut emango hemen. *Ulisesen* zehar dauden guztiak banan-banan azaltzen hasiz gero, artikulua honek duen luzeraren halako bi beharko baintuzke atal honentzat bakarrik, eta bestela ere aski luzea izango baita.

Eztabaida sakonetan sartu gabe, esango dugu mailaketa bat dagoela itzulgaiztasunetik itzulezintasunera lehentxeago egindako sailkapen orokor horretan. Noiz dira, beraz, jolas horiek itzulezinak? Sakontasunetan sartu gabe, esan dezakegu hori gertatzen dela hitz, esaldi edo testu baten esanahia (adierazgarritasuna, grazia) **hizkuntza jakin bateko formari erabat loturik** dagoenean, edo, beste modu batera esanda, hizkuntza horretan bakarrik duenean zentzua. Horrelakoetan, itzulgaiztasunetik itzulezintasuneraino doan tartean «borrokatu» behar izaten dugu itzultzaileok, garaile ateratzeko esperantza handirik gabe, gehienetan. Denok aurkitu izan ditugu horrelakoak (liburu batzuetan beste batzuetan baino ugariago), eta irtenbide hauetakoren bat aukeratu behar izaten dugu holako bide estutik igarotzean:

1. Egokitu (poemak, esaera zaharrak, argot edo jergak)
2. Paretsuko hitz-jokoren bat aurkitu
3. Balio bertsuko zerbaitez ordezkatu
4. Orri-barreneko ohar batez ezina aitortu.

Hona adibide batzuk:

## 1. POEMAK ETA GISAKOAK EGOKITU

### a) *Jesus Arraiaren balada* (1. episodioa)

<p><i>Inoiz izan den gazterik bitxiena hona! Ni Ama judua dut eta aita, berriz, hegazti. Joxepe arotzarekin ados ez nago oso, Hemen naiz ikasleentzat prest Kalbariorako.</i> (29. or.)</p>	<p><i>I'm the queerest young fellow that ever you heard. My mother's a jew, my father's a bird. With Joseph the joiner I cannot agree. So here's to disciples and Calvary.</i></p>
<p><i>Inoizko gazterik bitxiena ni Ama judua dut, aita hegazti. Joxepe Arotza ez dago ados Ikasleek prest naute Kalbariorako →</i></p>	<p>Lehen zirriborroa (ingelesekoaren erritmo eta neurri berean osatua, baina edukia pittin bat aldatu eta pixka bat bortxatuta), argitaratu ez zena.</p>

Kasu horretan esan dezakegu itzulpena dela funtsean, nahiz eta egokitzapenetik ere franko duen. Hasteko, neurria; euskaraz franko luzeagoa, 10-11 silabako ingelesezko poema errimadunak itzultzeko egokia, eta Etxeparegandik hasita (batez ere iparraldean) franko erabilia. Lehen zirriborroko bertsiotan (argitaratu ez zen horretan) ingelesezko erritmoari eta silaba-kopuruari eutsi zaie. Ez ordea zehatz-mehatz edukiari.

b) *The Rogue's delight in praise of his Strolling Mort*<sup>18</sup>

<i>Basta zuri, ezpain gorri</i>	<i>White thy fables, red thy gan</i>
<i>Ene elakri-lumia</i>	<i>And thy quarrons dainty is.</i>
<i>Zatoz gaur txaribelera</i>	<i>Couch a hogshead with me then.</i>
<i>Gure da gau guzia. (60. or)</i>	<i>In the darkmans clip and kiss.</i>

Ziur naiz *Ulysses Annotated*eko azalpenaren (edo hiztegi bereziren baten) laguntzarik gabe ingelesdunen % 95etik gorak ez dutela tutik ere ulertzen poema horretan. Horregatik, nik ere beste horrenbeste gitea erabaki nuen. Eta honako ohar hau erantsi nion:

60-1 **Basta zuri, ezpain gorri** «Rogue's Delight»eko bigarren bertsoa, hemen erromintxeleko baliokidez emana, halakorik izan denean: basta = esku; elakri-lumi = emakume, maitale; txaribel = ohe. Eta franko egokitua. Gaurko edozein ingelesek ez du tutik ulertzen bertso horretan, ez badiote hitzez hitz azaltzen jerga berezi horretako hitz bakoitza. Beraz, euskarazkoa ere paretukoa da. Hein batean, Mirandek estilo horretan egin zuen *Kama Goli* poemako zenbait hitz baliatuz.<sup>19</sup>

Dena dela, esanahiaren arloan iluntasun hori mantentzea erabakita, erritmo eta musikaltasun aldetik jatorrizkora ahalik eta gehien hurbiltzea erabaki nuen, Miranderen bidetik edo, hura baita poemen musikaltasunari arreta berezia jarri izan diotenetatik hoberentsuena, nire ustez. (2022ko argitalpenaren ondoren, konturatu naiz askoz hobeto geldituko litzatekeela: *Zatoz gaur txaribelera* dioen lerroa *Txaribelera etorri* bihurtuta. Errima borobilagoa, erritmo berdinarekin).

2. PARE(TSU)KO HITZ-JOKOREN BAT AURKITU

a) *Their syphilisation*

eta Bloom hari bere babesa ematen, eta moderazioa eta molestazioa aipatzen, eta beren koloniak eta zibilizazioa. —Sifilizazioa esan nahiko duzu —dio Herritarrak—. (343. or.)	Bloom trying to back him up moderation and botheration and their colonies and their civilisation. —Their syphilisation, you mean, says the citizen.
--	--

b) *House of Keyes*

Giltzen Etxea, ez zara jabetzen? Gill's du izena. Izenarekin egindako hitz-jokoa da (160. or.).	House of keys, don't you see? His name is Keyes. It's a play on the name.
---	---

Egokitzapen hori egiteko, **jatorrizkoan ageri den izen nagusia (Keyes) aldatu behar izan** nuen Keyes > Gill's, jatorrizkoari «behar baino errespetu gutxiago erakutsiz», baina ez nuen beste biderik aurkitu. Izan ere, jatorrizkoan Bloomek espresuki aipatzen du hor (*keys/Keyes*) hitz-jokoa eginda dagoela *key* hitz arruntarekin eta *Keyes* deiturarekin, eta horretan oinarritzen dela iragarkia eta jarri beharreko irudia. Euskarazko *giltzen* hurbilenekoa hori iruditu zitzaidan, baina ingelesezko *gill* horiek zerikusi gutxi dute giltzekin.

<sup>18</sup> Poemari buruzko argibide gehiago nahi dituenak hemen aurki ditzake: HEAD, Richard (1673). *The Canting Academy, or Devils Cabinet Opened*.

<sup>19</sup> Ikus MIRANDE, Jon (1982). *Ene Jainko Eidol Zaharra, Lur!*, Donostia: Elkar, 54. or.

Kasu horretan, beraz, paretsuko zerbait aurkitu (edo asmatu) nuenez, ez zitzaidan beharrezkoa iruditu orri-barreneko ohar tipiko horietako bat eranstea bukaeran. Jatorrizkoa eta itzulpena konparatzen dituen aise ohartuko da «tranpaz», ez ordea irakurle arrunta.

c) *The Rose of Castile.*

— <i>Gaztelako arrosaren kar hila.</i> Harrapatzen duzue non dagoen koxka? <i>Gaztelako arrosaren karrila.</i> Harrapazak! (470. or)	— <i>The Rose of Castile.</i> See the wheeze? Rows of cast steel. Gee!
Zein da Gibraltarko tranbien linearekin zerikusia duen operaren izena? <i>Gaztelako kar hila.</i> (501. or.)	What railway opera is like a tramline in Gibraltar? The Rows of Castele.

Bistan denez, esanahiari izkin egin zaio, eta hitzen azalari heldu. Horrez gain, ohar bat aipatzen da, baina ez hitz-jokoa azaltzeko (lan ederra ere!), baizik arrosa dontsu hori zer zen argitzeko:

149.1 **Gaztelako arrosa** *The Rose of Castile* Michael William Balfek 1857an ondutako opera baten izenburua.

d) *halfseasover empire*

edariaz haraindiko inperioa (85. or.)	halfseasover empire
---------------------------------------	---------------------

Hau da *overseas empire* eta *half-seas over empire* hitz jokoaren oinarria: *Halfseasover*: mozkorra, lagunarteko hizkeraz; hitz-jokoa: itsasoaz haraindiko inperioa/itsasoak baino gehiago edaten duen inperioa.

e) *Guinness's*

Guinnessisaren lehen kapituluaren irakurtzen dugunez (146. or)	as we read in the first chapter of Guinness's
--	---

Honako ohar hau lagungarria izango zela iruditu zitzaidan:

146.1 **Guinnessis.** **Guinness's** (Irlandako garagardo beltz ospetsuaren fabrika) eta **Genesis** (Bibliako *Hasiera* [Elizen arteko Biblia] edo *Jenesa* [Duvoisin]) hitzekin egindako hitz-jokoa ezaguna zen Dublinen.

f) *I was just... gear into my eye.*

<b>Begira</b> , han nengoen ni denborapasa Troyrekin, Dublin Metropoliko Polizian dudan aspaldiko lagun zaharra bera, Arbour Hilleko kantoian, eta jo'ta kedar-garbitzaile alu bat ez da ba parean pasa eta bere garbiketeta-tresna ia-ia sartu ez dit ba <b>begira</b> ? (311 or.)	I was just passing the time of day with old Troy of the D. M. P. at the corner of Arbour hill there and be damned but a bloody sweep came along and he near drove his gear into my <b>eye</b> .
---	---

311.2 **Begira, ni... begira?** *Ulisesen* agertzen diren hitz-joko ugarietako bat dugu hemen, ingelesezko homofonian oinarritua: *I* (ni) eta *eye* (begi), hemen egokitu egin behar izan dena. Episodioaren zentzuari atxikia da, begi-bakartasunaren gaiari baitagokio.



### 3. BALIO BERTSUKO ZERBAITEZ ORDEZKATU

#### a) *Palindromo pare bat*

Agian, berezitasunagatik, hau da lehenbizi aipatu beharrekoa, 7. episodioan ageri diren 2 palindromo. Jolas hutsa den testuren batean, hala nola Quenearen *Estilo-ariketak* obran, izango luke lekua holako bihurrikaria batek, baina nekez nobela «serio» batean. Baina *Ulises*, besteak beste, fartsa ikaragarria denez, aurkitu zion Joycek leku «egokia» bere maisulanean. Hala, egunkariko erredakzioan Lenehan izeneko kazetari batek egin ohi zuen ariketa gisa aurkezten dizkigu bi hauek:

—A dama ama da. Eta amama Ana dana amama. (153. or.)	—Madam, I'm Adam. And Able was I ere I saw Elba.
---	---

Bistan da horrelako perla baten itzulpena ezinezkoa denez irtenbide bakarra ordezkapena dela. Jo nezakeen sarera eta aurki nezakeen nik sortutako bi palindromo horiek baino hoberik. Adibide gisa Wikipedian daudenetatik, bereziki egokiak izango ziren *Orea ore, eroa ero* edo *Alu hauxe, sexu ahula?*. Baina iruditzen zitzaidan euskaraz ez genuela aski ezaguna den palindromorik. Esate baterako, niri lehenbizi bururatzen zitzaidana gaztelaniazko ospetsu hura zen: *Dábale arroz a la zorra el abad*. Horixe baliatu zuen Valverde bere itzulpenean, nahiz eta jokabide bitxi samarra erakutsi zuen hor: bigarren palindromoa ez itzultzea erabaki zuen, argudiatuz Cortázarrek eta bestek ingelesezko zatiak tartekatzen zituztela beren obretan eta irakurleari ez zitzaiola arrotza egingo itzulpenean horrelako bat aurkitzea. Eta bere hartan utzi zuen. Badaezpadako argudioa dirudi, baina bego horretan.

Pentsatu nuen saia nintekeela soinu eta luzeraz jatorrizko horien antzeko zerbait egiten, eta bizkaieraren erabilera «berezi» horietara jo nuen, jakinik arrotzak egingo zitzaizkiela askori, eta jakin gabe are bizkaieradunek balekotzat joko zituzten. (Palindromoa osatzeko «A dama» erabili nuen, «Dama hura» esateko). Oraingo, inork ez nau jipoitu.

#### b) *Aho-korapilo bat*

Peter Piper txikerrak okertu du piper txiker kizkur bat.	Peter Piper pecked a peck of pick of peck of pickled pepper.
---	---

Aho-korapilo horren kasuan, hotsari heldu zaio, eta erritmoari (zerbait) eta ez esanahiari. Bistan denez, itzulpenetik baino gehiago dauka ordezkapenetik.

#### c) *Hitz-joko bihurri bat, izen nagusi batean oinarritua*

Besteek nahi zezaketen berentzat <b>Will</b> , baina Annek <b>bil</b> zezakeen bere lakioaz, <b>bil</b> auak.	If others have their will <b>Ann hath a way</b> .
--	---

Ingelesesezko atsotitz ezaguna baliatu zuen Joycek hor: *If there's a will, there's a way* (Borondatea baldin badago, (lortzeko) bidea ere bai).

Gainera, Shakespeareren emazte Ann Hathawayren deitura erabiltzen du bere txistea egiteko, eta senarra lortzeko haren «bidea»z txantxa egiten (26 urtekoa izanik 18 besterik ez zituen gaztetxo, Shakespeare (Will), bereganatzeko artasoroko «bide» ezaguna erabili omen baitzuen).

Garbi dago izen nagusiak tartean direnean, hitz-jokoaren itzulpena are gehiago zailtzen dela.

Hoberik aurkitu ezinik, eta mila buelta eman ondoren ere hitz-joko horrek ez zuela zuzeneko soluziorik ikusita, perifrasi luze horretara jo nuen ezinbestean, konpentsazio moduan **Will-bil-bilau** hitz-jokoa eginez.

#### 4. EZINA AITORTU

Beste bi kasu hauetan (eta beste mordoxka batean), berriz, nire ezina aitortzea erabaki nuen:

##### a) *The unfair sex*

Begira zer aurpegi jarri dion emakume hark pasaeran. Krudela. Sexu zuzengabea. (172. or)	See the eye that woman gave her, passing. Cruel. The unfair sex.
--	--

172.4 **sexu zuzengabea** Ingeleseztako *fair sex/ unfair sex* hitz-jokoa galdu egiten da itzulpenean, euskaraz ez baitago hitz bakarrean biltzerik ingelesezko *fair*: 1) eder 2) leial, zintzo adierak.

##### b) *Kiss me straight on the brow and part*

Oi ene maitea eman musu garbi bat bekokian eta joan non ote dut nik beheko tokia (743. or.)	O my heart Kiss me straight on the brow and part which is my brown part
---	---

743.2 **Oi ene maitea eman** G. J. Whyte-Melville eta F. Paolo Tostiren *Goodbye* izenburua duen kanta batetik hartutako zatia: *Kiss me straight on the brow and part*: musu emadazu bekokian eta joan (+ ingelesezko hitz-jokoa *brow and part* [bekokian eta joan] *brown part* [alde marroia]).

Kasu honetan, nolabaiteko konpentsazio bat dago egina (*bekokia* eta *beheko tokia*, Mollyren «nahaste» horietako batera joz), baina, hala ere, hor dago oin-oharra, jatorrizkoan dagoen hitz-jokoa garbi gelditu dadin. Gainera, jatorrizkoan dagoen errimari (*Heart... and part*) ere eutsi zaio, hein batean: **Eman... bekokian eta joan**.

Horrelakoak izaten dira itzultzailearen ezina aitortzen duten orri-barreneko oharrak, baina *Ulises* honetan, beste ohar guztiak bezala, bukaeran zerrendaturik aurkituko ditu irakurleak.

## 7. Molly Bloomen monologoa

### 7.1. Monologo txundigarria

Ez dugu ahaztu behar Molly Bloomen monologo ospetsuak aho zabalik utzi zuela Carl Jung psikoanalista ospetsua, eta *Ulisesi* buruz saiakera bat idaztera bultzatu zuela, zeina honako hau zioen gutun batekin bidali baitzion Joyceri:

**Ulises** intxaur gogorregia egin zait eta ahaleginik ezohikoenetara behartu dit adimena, baina ez hori bakarrik, peregrinazio aski bitxietara ere behartu nau (ikuspegi zientifikotik). Zure liburuak, oro har, ez zidan bakerik eman bere zailtasunen aldetik eta hiru urtez tarteka aztertzen aritu nintzen, harik eta bertan murgiltzea lortu nuen arte. Baina esan behar dizut biziki esker oneko natzaizula eta baita zure lan erraldoiari ere, asko eta asko ikasi baitut hori irakurtzean. Seguru aski, sekula ez dut oso ziur jakingo gozagarri egin zaidan ala ez. Izan ere, nerbioak eta garuna gehiegi estutu behar izan ditut. Nik ere ez dakit gozagarri izango zaizun *Ulisesi* buruz idatzi dudana, ezinezkoa izan baitzait esan gabe

uztea zenbat aspertu naizen, zer-nolako marmarrak aterarazi dizkidan, zenbat madarikatu dudana, eta zenbat miretsi. Bukaerako etenik gabeko 40 orrialdeko atala psikologiako bitxilara benetako bat da. Seguru aski deabruaren amonak beste horrenbeste jakingo zuen emakumearen psikologia benetakoaz. Nik ez nekien. (azpimarra, nirea).

Hori idatzi zuen Carl Jungek Molly Bloomen monologoaz. Norak, ordea, Joyceceren emazteak, oso bestelako iritzia zuen gai horretaz, eta honako hau bota zuen: «Jimek ez daki tutik ere emakumeez». Edukiak txunditu zuen Jung, ez puntuaziorik ezak.

## 7.2. Molly Bloomen monologia, Ulisesen gakoa.

Honako hau idatzi zion Joycek bere adiskide Frank Budgeni 1921eko abuztuaren 16an, *Ulises* bukatua-edo zuenean:

Penelope da liburuaren gakoa. Lehenbiziko esaldiak 2.500 hitz ditu. Zortzi esaldi daude episodioan. Emakumearen *bai* hitzaz hasten eta bukatzen da episodioa. Munduaren bola eskergak bezala biratzen du astiro, ziur eta aldakaitz, jira eta bira, eta haren lau puntu kardinalak dira emakumearen bularra, ipurdia, sabela eta alua, *because* (izan ere), *bottom* (atzealde, ipurdi) zentzu guztietan (*bottom button*, *bottom of the class*, *bottom of the sea*, *bottom of his heart*) *woman, yes*. Nahiz eta aurreko edozein episodio baino obszenoagoa den, emakume zeharo sana bete-betekoa amoralak errealgarria ez-fidagarria erakargarria azkarra mugatua zuhurra soraioa iruditzen zait niri. *Beti baietz esaten duen haragia naiz*<sup>20</sup>.

Molly Bloomen monologoan, Joycek emakumearen barnea agerian jarri nahi du. Goraxeago ikusi dugu Molly Bloomen monologia dela *Ulisesen* gakoa. Budgeni adierazi zion Mefistofelesen *Ich bin der Geist der stets verneint* (Beti ukatzen duen izpiritua naiz) autodefinizio erabatekoa alderantziratu nahi izan zuela episodio horretan (*Beti baietz esaten duen haragia naiz*) eta «burutazioaren eta teknikaren aldetik giza aurreko eta agian giza ondoko lurra pintatu nahi izan zituela».

Beraz, baldin eta Mefistofeles ukatzen duen izpiritua bada, beti baieztatzen duen haragia izango da Molly Bloom. Horregatik da hasten eta bukatzen episodioa *Bai* hitzaz, beste 75 aldiz errepikatzen haren orrialdeetan jatorrizkoan eta 142 aldiz euskal itzulpenean.

## 7.3. Ezaugarri formalak

*Ulisesen* irakurleari (edo niri bai behintzat lehenbizikoz irakurri nuenean), ez dago esan beharrik, Molly Bloomen monologoaren puntuaziorik eza egiten zaio txundigarriena. Txundigarri eta mirezgarri. Gerora, horrelako atalak franko ugaritu ziren hurrengo urteetan argitaratu ziren nobeletan, eta imitatzailek ez da falta izan noski (are gurean ere). Joera hori beste koxka bat estutuz, hor ditugu, esate baterako, Patri Urkizuren *Sekulorun Sekulotan*<sup>21</sup> nobela, edo Koldo Izagirreraren *Zergatik bai*<sup>22</sup>, garai hartan Mollyk bere jardunarekin sortzen zigun miresmen eta erakarmenaren adierazgarri.

Molly Bloomen monologoaren azterketak saiakera oso baterako gaia ematen du, baina hemen agian baliagarria izango da aipatzea *Ulises* irakurtzean aurkitzen dugun atalik deigarrienaren sorburua non egon daitekeen edo haren forma zerk baldintzatu zuen.

<sup>20</sup> *Ich bin der Fleisch der stets bejaht* (Joycek bere aleman badaezpada eman: Gilbert 1957, 1:170).

<sup>21</sup> Urkizu 1975.

<sup>22</sup> Izagirre 1976.

Esaten dute Joycek bere emazte Nora Barnacleren amodiozko gutunetan aurkitu zuela Molly Bloomen bakarrizketarako eredu. 1904an ezagutu zuen Joycek Nora Barnacle, eta handik 27 urtera ezkondu ziren, bi ume haziak zituztela. Joyceren obraren ikertzaile Phillip Herringek dio estilo aldetik Noraren gutunak izan zituela inspirazio iturri. Hona haietako bat, adibide gisa:

Jim maitea neka-neka eginda nago eta gaur gauean ezin dut ezer askorik esan eskerrik asko zure eskutitz atseginagatik ustekabeen jaso baitut gaur gauean lanpetuta nembilen oso postaria etorri denean eta korrika joan naiz logeletako batera zure eskutitza irakurtzera bost aldiz deitu didate baina ez entzunarena egin dut orain hamaiketerdiak dira eta ez daukat esan beharrik lan ederrak ditudala begiak irekita edukitzeko eta txoratu egiten nau gaua lotan emateak hola ezin dut zurekin pentsatu hola esnatzen naizenean goizean ez dut zurekin beste ezerekin pentsatuko gabon bihar arratsaldeko zazpiak arte NORA

Emakumeak «izaki instintibo, eroxkak» zirela pentsatzera emana omen zen Joyce, eta hona zer galdetu zion behin bere anaia eta zaintzaile Stanislausi: «Konturatu al haiz emakumeek, idazten dutenean, puntuazioa eta letra larriak alde batera uzten dituztela?»

Hala gertatzen omen zen amak Joyceri idatzi zizkion gutunetan eta baita Nora Barnacle gero emazte izango zuen neska gazteak idazten zizkionetan ere (ereduren batetik kopiaitutako amodiozko gutun ezetsuren bat ez baldin bazen). Brenda Maddoxek *Nora* biografian aipatzen du gutuna, eta baita Stanislaus anaiak ere goraxeago aipatu liburuan.

Hala ere, garbi dago Joycek, episodioaren zentzu orokorra, egitura eta teknika azaldu arren, ez ziola adierazi Budgeni haren ezaugarri txundigarriena: 8 esaldi puntuaziorik gabekoz zegoela osatua. Hona monologoaren ezaugarri batzuk:

- a. Zortzi «esaldi» puntuaziorik gabeak.
- b. Ahozkotik beste edozein baino hurbilago dagoen episodioa.
- c. Anakolutoa da figura nagusia.
- d. Eskolatu gabearen idatzizko akatsak: idatzizko estandarretik pixka bat urruntzen eta ahozkora hurbiltzen den episodioa.
- e. Anbiguetate ugari, puntuaziorik ezaren ondorioz.

Zortzi «esaldi» horiei balio sinbolikoa eman zaie. Molly ohean etzanda ageri zaigu bere buruarekin hizketan. Beraz, 8 *etzana* ageri zaigu, infinitua alegia. Emakumea = infinitua, beraz. Eta infinitua adierazteko moduetako bat zatiketarik eta etenik ez duten 8 esaldi puntuazio gabeko horiek ditugu. Beste holako zenbait irudi ere agertu dira lehenago: zilbor-hestez zilbor-hestea loturik ageri diren santu edo fraideak, besteak beste.

Baina puntuazio falta horrek hasieran asko sustatzen badu ere, esan beharra daukat episodio hori ez zitzaidala inola ere egin liburu osoko zailena, ez irakurtzeko (atzera-aurrera franko egin behar izaten dira, hori bai), ez itzultzeko. Izan ere, Mollyk darabilen hizkera aski hurbila zaio edozein irakurleri, hor ez dago inolako filigranarik, gauzak modu arrunt eta garbian (edo zikinean nahi bada) esaten ditu, eta falta duen puntuazioa jarriz gero, dena oso argi ulertzen da.

#### 7.4. Itzulpen-metodologia

Episodio honek tratamendu berezia merezi du itzultzailearen aldetik, eta nirea honelakoa izan zen, gutxi gorabehera.

- Lehenik, jatorrizko testuari legozkioken puntuazio markak ezarri, jakin ahal izateko esaldiak «non hasten ziren eta non bukatzen». (ikus 2. eranskina).
- Akats orokorrak markatu; apostrofe ezabatuak, bereziki: *near OHaras tower, doesnt, Im, didnt, womans body, couldnt, I atom (=one atom)*.
- hitz gakoaren kontrolaz arduratu: *because* (48), *bottom* (21+4), *woman* (52), *yes* (75).
- Okerren konpentsazioa edo hizkera «naturalerako» joera pixka bat.

Erroreak sistematikoak ziren heinean, ni ere berdintsu egiten saiatu nintzen. Hor egin nituen «ahozkoaren aldeko» nolabaiteko desbiderapenak, hiztegi batuan estandarizatuak diren hitzen aldagaiak (gusto, sinistu, aisa, anima) edo *Heg. Herr. nahiz beh.* marka daramatenei bide emanez (*edukazio, edadeko, igual, txaketa, sikiera, aguantatu, enkargatu, akaso*) edo mailegu baztertuei (*liga, korritu, obispo, primera, atalaje, lustreatu, kargante, muñeka, despertadore, etxura*), edo adiera bereziren bati leku pixka bat eginez: (*kargatu = haurdun utzi*). Hona hemen irakurleak aurkituko dituen «trakeskeria» batzuk:

1. Nere, ezker, «ahozko» inperatiboak: *utzigun* (utziezagun), (*aze = a zer*), *esertzea bazeukala* (eserzitekeela), *eztala* (ez da hala?); *bérataz; bajina bat...*

2. Hitanoan nahasteren bat, propio egina (edo zuzendu gabe utzia): *kontua da...; ederki pasa dik; esaten ziotek* (hartutako erabaki heterodoxoaren arabera noka beharko luketenak)...

3. Aditz edo deklinabide okerren bat edo beste: *zihoan\** = zoan; *neronei\**; *ikusiko geniken zer gertatuko zen\**...

Zaila egin zitzaidan desbiderapen horiek areagotzeko eta ahozkoa gehiago hurbiltzeko tentazioa saihestea, eta euskara «naturalaren» aldekoek eskertuko zidaten agian bide horretatik ausartago egin izan banu aurrera, baina kontuan hartu nuen Molly Bloomek, akatsak akats, hizkera aski estandarra eta zuzen idatzia darabilela, eta, beraz, aski zela goian adierazitako akats horiei bide ematea, eta ez, esate baterako, *Zergatik bain K. Izagirrek egindakora hurbiltzea*. Joera hori azpimarratu nahi izan banu, episodioak hasiera hau beharko zukeen: *Bai zergatik honek...* edo *Bai zeatik onek...* edo *Bai ze onek*. Eta zilegi izango zen agian, baina esandako erdibide horretan gelditzea erabaki nuen.

Bestalde, monologo osoan itzulpen-teoriari buruzko esku-liburuetan «konpentsazio» hitzaz izendatzen den legeari atxiki nintzaion Mollyren jarduneko akatsei dagokienez, alegia jatorrizko testuan dauden akatsen paretsukoak eginarazi nizekion Mollyri, baina ez nahitaez berak egiten zituenak (ezin, esate baterako, deklinabidekorik aurkitu jatorrizkoan) edo egiten zituen lekuan, baizik eta forma aldetik testu koherente samar bat osatzeko egokiak iruditu zitzaizkidanak eta egoki iruditu zitzaidan lekuan.

#### 8. *Quandoque bonus dormitat Homerus*

J. M. Valverderen (eta beste hainbaten) itzulpeneko adibide pare bat aipatuko dut hemen – irristadak –, nahiz eta beharbada ez den oso dotorea bere buruaren defentsan argudiorik eman

ez dezakeenari horrelako eztenkadak ematea. Baina, itzulpen horrek defendatzaileak erruz dituenez, agian aterako zaio baten bat alde.

Erdi txantxetan Twitterren *Ulisesen* zatiak ematen hasi nintzenean, jatorrizkoa neure kabuz itzuli ondoren J. M. Valverderen bertsioarekin konparatzen nuen, nire desbiderapenak zenbatekoak ziren ikusteko, eta haren arabera hasi nintzen nirea «txukuntzen», hark zituen defendatzaileen jarraitzaile ez itsu baina bai betoker samar bihurturik. Oraindik ez nuen aldamenean hurrengo urteetan bilduko nuen metro eta erdi zabaleko bibliografia lagungarria – *Ulysses Annotated*, frantsesezko bi bertsioak, Francisco García Tortosa eta María Teresa Venegas Lagüensen gaztelaniazkoa (aurrekoak baino fidagarriagoa nire ustez), katalanezkoa, alemanezko biak, italierazkoak, galegozkoa eta besteren bat-. Esan behar dut, itzulpenean aurrera egin ahala, nire hasierako jarrera fidakorra laster samar bihurtu zela eszeptikoxeagoa, eta hurrengo hilabeteetan neure buruaz bezain gutxi fidatzen hasi nintzela maisuaz. Hona zergatik.

*Ulyssesen* lehenbiziko orrialdean honako esaldi hau aurkitzen dugu:

**–For this, O dearly beloved, is the genuine christine:**

(*Ulysses*, 1922)

–Porque esto, oh amados carísimos, **es lo genuinamente cristino.** (????!!!)

(*Ulises*, J. M. Valverde, 1976)

–Porque esto, oh amados míos, **es el verdadero Cristo** (????!!!)

(*Ulises*, José Salas Subirat, 1946)

**–Porque esto, oh amadísimos, es la verdadera cristina:**

(*Ulysses*, García Tortosa eta Venegas Lagüens, 1999)

–Denn dies, geliebte Gemeinde, **ist das wahre Eucharistilin:** (????!!!)

(*Ulysses*, Georg Goyert, 1927)

–Denn dies, o geliebte Gemeinde, **ist der wahre eucharistische Jakob:** (????!!!)

(*Ulysses*, Hans Wollschläger, 1975)

–Car ceci, ô mes bien-aimés, **est la fine-fine Eucharistie:** (????!!!)

(*Ulysse*, Auguste Morel et alii, 1929)

**–Car ceci, ô mes bienaimés, est l’authentique Christine:**

(*Ulysse*, Jacques Aubert et alii, 1999)

– Perché questo, o miei diletta, **è il genuino cristino:** (????!!!)

(*Ulisse*, Giulio de Angelis, 1960)

–Poiché questa, o miei diletta, **è genuina e cristina sostanza...**

(Gianni Celati, 2013)

**–È questa, infatti, miei carissimi, la vera Cristina:**

(*Ulisse*, Enrico Terrinoni, 2012)

**–È questa, infatti, miei o cari diletta, è l’autentica Cristina:**

(*Ulisse*, Mario Biondi, 2020)

**–Porque isto, ó amadisimos fillos, é a verdadeira cristina:**

(*Ulises*, Eva almazán et alii, 2013)

**–Hau, ene maite bihotzekook, bene-benetako kristina da-ta:**

(*Ulises*, X. Olarra, 2015, 13. or.)



Non dago koska? Ba, *christine* harrigarri horretan, jakina. Espero zena –eta egoerak berez zekarrena– *christian* izango zatekeen, baina Joycek *christine* idatzi zuen, eta, hiztegiatara jotzen badugu, Christine izen berezia baizik ez zaigu agertuko. Baina nik erabili nuen testuan *christine* letra xehez idatzi izanak ere ez du asko laguntzen (egia esan, orain esku artean ditudan edizio gehienetan Christine ageri da). Baliteke errata izatea, edo Joycek sartu zituen hainbat enigma horietako beste bat izatea, edo propio zuzendu nahi izan ez zuen errata. Nork daki?, horrelakoak ere egiten baitzituen. Dena dela, *christine* hori *cristiano* ematea erdipurdiko soluzioa izango zen, baina inola ere ordain gisa eman ez zitekeena *cristino* zen<sup>23</sup>.

Zer egin zuten hasierako itzultzaile gehienek? *Ad sensum* itzulpen bat egin, logikaren arabera, edo saihebidereen bat bilatu. Baina berriki itzuli dugunok, Don Gifforden *Ulysses Annotateden* (eta baita Sam Sloteren edizio ohardunean ere) ageri den oharrari jarraituz, episodio osoan katolikoaren mezaren parodia aski nabarmena dagoela onartuta, kontuan harturik **Meza beltzetako elementuetako bat aldareztat emakume baten gorputza erabiltzea zela**, interpretazio horren arabera ordain eman dugu.

Katolikoek predikatzen dute (eta sinesten) mezako sagaran, transubstantiazio deitzen den miraria gertatzen dela, alegia ogia eta ardoa Kristoren gorputz eta odol bihurtzen direla, hain zuzen ere, apaizak hitz hauek esaten dituenen: *Hoc est enim corpus meum: Hau nere gorputza da-ta*.

Hitz horiek honela daude moldatuak *Ulyssesen*:

—*For this, O dearly beloved, is the genuine Christine: body and soul and blood and ouns.*

—**Hau, ene maite bihotzekook, bene-benetako kristina da-ta: gorputz eta arima, eta odol eta zauri.**

Eta horregatik itzuli dugu «nola edo hala gorputz bihurtzen zen ogia» emakume batena zela –Kristina kasu honetan, Kristoren emakumezkoa–, eta pasarte horretan zehar-adierazpen hori dagoela nabarmendu dugu. Interpretazio hori egokia izan daitekeela egiaztatzeko, aski genuke Googlen «meza beltza» bilaketaren emaitzei begirada bat ematea. (ikus 3. eranskina)

Dena dela, *ad sensum* itzuli dutenak hurbildu dira nolabait azaleko esanahira, baina oharkabean joan zaie sakon-sakonekoa. Izan ere, hasiera-hasieratik ageri den parodia (Buck Mulliganen *Introibo ad altare Dei* horrekin) azken muturreraino eramana baita sagarako hitzei («Hau nere gorputza da-ta») egiten zaien isekarekin. Hor, beraz, Azken Afariko eszenaren eta hitzen parodia dago, Katolizismoaren oinarri den Eukaristiarena, alegia. Badirudi XXI. mendean itzuli dugun gehienok ontzat eman dugula Giffordek ematen duen azalpena.

Ikus dezagun *Ulisesen* lehenbiziko orrialdeetan ageri den esaldi bat, eta zenbait itzultzailearen ordainetan nola ageri den:

**So I carried the boat of incense then at Clongowes.**

(*Ulysses*, I. episodioa).

Así llevé yo aquella vez **el incensario** en Clongowes.

(Salas Subirat, 1947an, eta 2015eko berrinprimaketa batean)

<sup>23</sup> RAEren definizioa hau baita: *adjetivo · nombre masculino y femenino*. Que era partidario de Isabel II bajo la regencia de su madre María Cristina de Borbón, contra el pretendiente don Carlos, en el segundo tercio del siglo XIX español.

Así llevaba yo **el incensario** entonces en Conglowes.  
(Valverde, 1976)

Del mismo modo llevé **la naveta con incienso** entonces en Clongowes.  
(García Tortosa-Venegas Lagüens, 1999)

Halaxe eramaten nian **nabeta** Clongowesen.  
(X. O. 2014ko zirriborroan)

Halaxe eramaten nian **intsentsu-ontzia** Clongowesen.  
(X. O. 2015eko argitalpenean, 21. or.).

D'aquesta manera portava **l'encenser** aleshores, a Clongowes.  
(J. Malafré, 1981)

Era así como levaba daquela **o incensario** en Clongowes.  
(Eva Almazán eta beste hiru, 2014)

C'est ainsi que je portais **l'encensoir** à Clongowes.  
(Morel, 1929)

C'est ainsi que je portais **la navette d'encens** jadis à Clongowes.  
(Aubert et alii, 2004)

So trug ich damals den **Weihrauchkessel** in Clongowes.  
(Georg Goyert, 1927)

So hab ich das **Weihrauchschiffchen** getragen damals in Clongowes.  
(Hans Wollschläger, 1975)

Così reggevo il **bossolo dell'incenso** in quel tempo a Clongowes.  
(Giulio de Angelis, 1950)

Allora la portavo così la **navicella portaincenso** a Clongowes.  
(Enrico Terrinoni, 2012)

Così un tempo portai il **bossolo dell'incenso** a Clongowes.  
(G. Celati 2013)

Argi eta garbi dago **bi tresna** diferente direla Eliza Katolikoaren hainbat erritutan erabiltzen diren bi horiek: intsentsua eramateko ontzia bata –nolabaiteko **itsasontzi-eitea** izan ohi duena, eta *naveta*, *navette*, *navicella* nahiz ingelesezko **boat** eta alemanezko *Schiffchen* hitzetan jaso– eta intsentsua erretzen dena eta usain gozoko kea zabaltzeko erabiltzen dena bestea – **intsentsario**, **intsentsatzeko** edo **intsentsu-ontzi**, OEHn agertzen denez– (ikus 4. eranskinen irudiak).

Googlek, ahalegin handirik gabe, berehala ematen dizkigu bien irudiak. Eta hona goian aipatutako hizkuntza horietan nola bereizten diren:

EN	EU	FR	DE
Thurible, censer = (incense burner)	Intsentsario, intsentsu-ontzi, intsentsatzeko (OEH)	Encensoir	Weihrauchkessel
Boat of incense	Nabeta (UZEI, Elhuyar)	Navette	Weihrauchschiffchen

IT	CAT	GA
Incensière bruciaprofumi turibolo	Encenser	Encensario Botafumeiro
navicella portaincenso	naveta	Naveta

Kontua da Joycek oso ondo bereizten zituela biak, gaztetan katoliko sutsua izan baitzen, eta halaxe ageri da *Artistaren gaztetako portretan*, kasuan kasuan egokia den hitza: *thurible* bi aldiz eta *censer* bizpahiru aldiz.

He had shaken the **thurible** only slightly like such a one,  
He would never swing the **thurible** before the tabernacle as priest.  
The earth was like a swinging swaying **censer**.

Joycek *Ulisen* oroitzen duen eszena *Portretan* ere ageri da. Oraingoan ez da ageri *boat of incense*, baina bai, ordea, *boatbearer* «intsentsu-ontziaren eramaile», alegia.

He remembered the summer evening he had been there to be dressed as **boatbearer**.

**Intsentsuaren kaxa** eramateko janztera hara joan zeneko uda arratsa (Irene Aldasoro, 1992).

Hor goian aipatutako intsentsu arteko peregrinazio horretan honako hauetaz ohartuko gara:

1. Bai alemanera, bai frantsesera, bai gaztelaniara egindako **lehen itzulpenetan** bi tresnak nahastu dituzte itzultzaileek, eta jatorrizkoan ageri den *boat of incense* (intsentsua eramateko ontzia, nabeta) *intsentsario* bihurtu dute. Joycek berak «gainbegiratu» omen zituen bi itzulpenetan ageri da akats hori. Frantsesezkoak beste bi gainbegirale ere izan zituen (Stuart Gilbert, Valéry Larbaud), baina inor ez zen ohartu edo ez zion garrantzirik eman.
2. Hiru hizkuntza horietara egindako bigarren itzulpenetan (frantsesera eta alemanera) edo hirugarrenean (gaztelaniara) akatsa zuzendu dute.
3. Gaztelaniara Valverde 1976an eta geroago Malafrék katalanera eta Eva Almazánek eta beste hiruk galegora egindakoetan, abiapuntuko frantsesezkoa edo alemanezkoa bidelagun harturik agian, ez dute akatsa zuzendu.
4. Horretaz oharturik, euskarazko lehen bertsioan *nabeta* jarri nuen, hala ageri delako UZEIren Erlijio-hiztegian eta Elhuyarrenean (eta gogoan nuen horixe zela 1960. inguruan meza-mutil ibili ginenok erabiltzen genuen terminoa). Argitaratu zen bertsioan, ordea, emandako hitzaldi batean entzuleek iradokitako bidetik, *intsentsu-ontzi* utzi nuen, horrek ekar zezakeen nahastearen jakinaren gainean. Erabaki horretan, besteak beste, **boat = (itsas) ontzi** parekotasuna hartu nuen kontuan (*naveta* hitzaren azpian ere hortxe dagoena, jakina, baina ezkutuxeagoan), eta *nabeta* utziz gero agian harrapatzen zailagoa egingo zitzaiola irakurle arruntari. Orduan ez nuen aztertu *Artistaren gaztetako portreta*, eta orain ikusi dut han Irene Aldasorok *thurible*, *censer* = **intsentsu-ontzi** egiten duela (eta baita Hiztegi Batuak ere) eta *boat of incense* = *intsentsuaren kaxa*. Beraz, ez ditu bi tresna horiek nahasten.

Eta zer ateratzen dugu intsentsu arteko peregrinazio luze honetatik? Nik, behintzat, bitarteko itzulpenak erabiltzen direnean kontu handiz ibili behar dela ikasi dut, are nolabaiteko mirespena diegun itzultzaileen lanez baliatzean, oroitzuz itzultzaile onenak ere tarteka kuluxkaren bat egiten duela. Garbi dago horrelako akatsek ez dutela baliogabetzen, berez eta besterik gabe, itzulpen bat, are gutxiago *Ulisesen* tamainakoa, baina jainkozkotasun ez hain merezia bere lekuan jartzeko balio dezake.

Bestalde, gure gazte-denboran Salas Subiraten «itzulpen txarra edo oso txarra» omen zenean trabatuta J. M. Valverderegera itzaropenez beterik pasatzen ginenean «hura ona edo oso ona» zelakoan, ez ginen besterik gabe iristen Lur Agindura.

Dena dela, *Ulisesen* bertso berrietan (gaztelaniara, frantsesera, alemanera eta italierara egindakoetan) hemen aipatutako akatsak eta beste asko zuzenduta aurkituko ditu irakurleak. Eta euskarazkoan, berriz, goian ageri den moduan.

Eta zer lezio atera daiteke hemendik? Lehenik eta behin, *Ulisesen* lehenbiziko orrialdeetan holako buruhausteak sortzen dituzten hitz edo pasarteak baldin baditugu, zer ez zaigun sortuko hurrengo 700 orrietan, gainera egileak berak horrelako «tranpak» propio jarri zituela kontuan hartuta.

## 9. *Ulises* zuzentzea: Sisiforen lana

Hau diot igela argialetxeak argitara eman duen *Ulisesen* mendeurrenako edizioako hitzaurrean:

*Ulises* honen lehen argitalpenaren hitzaurrean, 2015eko ekainaren 16an, adierazi nuen **2022 aldera bertso zuzendu bat argitara emango nuela**, aukera baldin banuen. Eta horra zazpi urte horiek igaro. Hona, bada, orduan agindutako argitalpen zuzendu eta emendatua.

Hitzaurre hartan bertan nioen itzulpenak bazuela abantaila bat jatorrizkoaren aldean: beti zegoela hobetzea. Eta horren **esperantzan** aritu naiz lanean azken hilabeteotan.

Klasikoen itzulpenak berrargitaratzeko arrazoien artean beti aipatu izan da zaharkituak gelditzen direla, eta hori izaten da itzulpen berriak egiteko arrazoi nagusia. Gure kasuan, euskara batuaren normalizazioan egindako urratsak ere aipatu izan ditugu klasikoen itzulpenak berritzeko arrazoien artean. Baina ez dira horiek *Ulises* berritzeko arrazoi nagusiak, beste hau baizik: ***Ulisesen* itzulpenak beti izango direla behin-behinekoak. Baita oraingo hau ere.** (*Ulises*, Mendeurrenako edizioa, 5. or.)

Bai, hizkuntza handietan, beti aurkitzen ditugu klasikoen hainbat itzulpen, mendeetan zehar eginak, aurrekoak zaharkituak gelditu direlakoan. Azken lau mendeetan, esate baterako, 70 aldiz ekarri omen dute ingelesera *Odisea*. Esan bezala, aurrekoak zaharkituak gelditu direla argudiatu ohi da berriro holakoak ekartzeko. Egia da, askotan, halako edo halako itzulpen «kanonikotzat» hartua izaten dela, eta iraupen luzeagoa izaten duela. Hala gertatzen da, esate baterako, *Odiseak* gaztelaniara izan dituen itzulpenekin. Esate baterako, halakotzat eduki izan dugu Luis Segalà i Estallellarena XX. mende osoan. Itzulpen literal eta «filologikotzat» har dezakegunak balio izan zion, adibidez, gida gisa Aita Santi Onaindiari bere euskarazko bertsoia egitean. Hala ere, horrek ez du galarazi estilo bertsoko beste zenbait argitaratzea gaztelaniaz XX. mendean eta baita XXI.ean ere.

Baina ba al zegoen motiborik *Ulisesen* euskarazko lehen bertsioa argitaratu eta «berehala» bigarrena argitaratzeko, frantsesezkoaren kasuan 70 urte igaro baziren lehenbizikotik bigarreneira eta alemanezkoarenean 50 inguru? *Ulyssesen* lehen itzulpena Goyertek alemanera ekarritakoa izan zen. Joycek berak gainbegiratu zela adierazten zuen argitaratzaileak, irakurleari ziurtasuna emateko asmoz. Baina Joyce, nahiz eta itzultzailearekin elkartu argitaratu baino lehen, ez zen oso pozik gelditu emaitzarekin, eta 1930ean edizio zuzendua argitaratu zen. Handik 45 urtera Hans Wollchslägerren argitaratu zen. Hartaz ere sekulako goraipamena egiten zuen argitaratzaileak 1975ean: «mendeko itzulpenik hoberena» omen. 2006an zuzentzeko premia ikusita, nonbait, Harald Becki, Dirk Vanderbeker eta Dirk Schultzeri eman zieten edizio-lana. Berriki ikusi dut 2022an eman dutela argitara *Jubiläumsausgabe* bat (Mendeurreneko edizioa). Ez dut «mendeko hoberena» omen zenarekin alderatu, baina hoberena hobetua izango da, segur aski.

Badira itzultzaileak behin beren lana bukatu eta argitaratutakoan sekula gehiago irakurtzen ez dutenak. Ez da nire kasua. Aukera izan dudanean, nire edozein itzulpenen berrediziorik egin behar izan bada, nahiago izan dut zuzendu, bere hartan utzi baino. Premia handiagoa aurreikusituen (eta gerora ikusi) *Ulisesen* kasuan. Hala, argitaratu aurretik eta argitaratu berritan susmoa besterik zena premia bihurtu zen, mendeurrena hurbildu ahala.

Lehen bertsioa zuzentzeko nuen abiapuntuetako bat zera zen: ohartua nintzen, hitzaurrean hala esan arren, barne-bakarrizketak ez nituela beti hika egin (bai gehien-gehienak). Eta zazpi urteko tarte horretan lortu nuen *Ulysses* bat, irakurleari lana errazte aldera **narratzailearen jarduna eta pertsonaien bakarrizketak grafikoki bereizten dituena**<sup>24</sup>. Barne-bakarrizketa guztiak letra etzanez emanak ditu. Zuzenketaren hasieran horri garrantzi handia eman nion arren, konturatu nintzen, oro har, bi diskurtso horiek –hikakoa eta neutroa–, intuizio hutsez, zuzen emanak nituela gehienetan, eta, bestalde, hobeto pentsatuta, ez nuela izan behar hain koadrikulatua, hika egiten dugunok ere ez dugula beti horrela egiten, are geure buruari ari garenean, eta, ondorioz, ez zela sekulako nahastea sortuko. Beraz, garrantzi handiagoa eman nien laster zehaztuko ditudan beste alderdi batzuei horri baino.

Zazpi urteren buruan, bi irakurle eskuzabalen laguntzari esker, era askotako zuzenketak egiteko premia ikusi nuen, itzulpena beti hobetu daitekeela erakusten dutenak: irakurketa okerrak, irristadak, are ergatiboren bat, interpretazio eskasak, ezinbestean emandako baliokide badaezpadakoak, hitz edo zatitxoaren desagerpenak, oharren eta testuaren arteko inkongruentziak... Denborak –zuzenketarako denbora faltak– badu zerikusia horretan, eta baita pilota-partidetako bukaerako hutsei buruz esatariek aipatu ohi duten «nekearen lanak». Izan ere, ez da harritzekoa itzultzaile suharrenak ere, maiz loari orduak kenduz hiru urte luzez arituta, lo-kuluxkaren bat egitea, Homerok bezala. Hala ere, aspaldiko artxiboei begiratu, ikusi dut lehenbiziko zirriborroa 2014 udarako egina nuela, eta banuela beste urtebete itzulpena txukundu eta argitaratzeko. Eta denbora asko dirudi, gaurtik begiratu. Baina ez, ez zen aski izan. 2015eko udarako bukatu beharra neukan, eta liburua argitaratu. Eta halaxe egin nuen, azken txanpa maratoniano baten ondoren.

<sup>24</sup> JOYCE, James (2012). *Ulysses. Remastered by Robert Grogan*, Co. Mayo (Ireland): Music Ireland Publications. . Groganen «erremasterizazio» horren helburua irakurleari erraztasunak ematea da, batez ere puntuazioari, elkarrizketen markei eta barne-bakarrizketen arloari dagokienez.

Garbi dago denok ez dugula jarrera bera gure itzulpenen testuari buruz. Esate baterako, Valverdek izan zuen bere itzulpenaren zuzenketa egiteko aukera, Hans Walter Gablerren *The Corrected Texten* argitalpenaren aitzakiarekin Lumenek 1988an egin zuen argitalpen berria zela-eta («*Esta edición sigue exactamente las directrices de la edición crítica Garland, New York, 1984*»).

Eta pena da bigarren aukera horretaz baliatu ez izana, zuzenketa batzuk egin baitzituen testuan, 1988ko argitalpenari erantsi zion ohar batean zioenez: «*En esta nueva edición he podido retocar mi traducción, en dos sentidos: ante todo, he corregido algún error tipográfico y he modificado alguna palabra o frase en forma que ahora me ha parecido más feliz*».

Aukera paregabea zuen bere testua hobetzeko, *Ulisesi* buruzko ikerketa eta era guztietako azterketei esker egindako aurrerapenaren aitzakian. Goiko esaldi hori irakurrita, ordea, badirudi ez zuela berrikuspen sakonik egin nahi izan. Agian, nire ustez, hobe zukeen Gablerren edizio kritikoaz baino gehiago *Ulysses Annotatedez* baliatu izan balitz, hainbeste aldiz aipatu dudana Gifforden ohar-liburuaz, baina ez zuen halakorik egin.

Harritzen naiz Valverdek hori egin ez izanaz; izan ere, hura, ni bezala, «Damu det jauna bihotz guztitik zu nahigabetu izana/ ez, ez gehiago pekatu nere Jaungoiko laztana»ren garaietako hezkuntza jasota, pentsatzekoa da egindako okerrez damutua izango zela. Gainera, ez zeukan inolako jendaurreko konfesiorik egin beharrik. Aski zuen isil-isilik behar ziren zuzenketak egitea. Ez zen inor konturatuko (eta hori ere egin zuen, nolabait «*en forma que ahora me ha parecido más feliz*»), baina, egin izan balu, askoz hobeto geldituko zitzaion egindako lana.

Orain, mendeurrena dela eta, hasi dira edizio zuzenduak eta berriak<sup>25</sup> agertzen (egile-eskubideak jabari publikoan egoteak ere franko laguntzen du horretan), eta aurrekoak baino hobeak izango dira, segur aski. «Nahi litzake!» esango du norbaitek. Izan ere, ez da berdin José Salas Subirategi –1945ean<sup>26</sup>, inoren eta ezeren laguntzarik gabe– egin zuena egitea edo 2022an ditugun baliabide guztiekin *Ulysses* itzultzea. Baina gauza bat da itzulpen hobeak egiteko aukera eta baliabideak eskura izatea, eta beste bat itzulpen hobeak egitea.

Beraz, 2015eko edizioak bazuen zer zuzendua, eta horretan eman nuen mendeurrenaren aurreko hilabete mordoxka. Bi helburu zituen zuzenketak: okerrak zuzentzea eta badaezpadakoak hobetzea.

Hona hemen aipatu ditudan akatsen adibide batzuk:

Jatorrizkoa	2015eko edizioa	2022ko edizioa
Well, it's <u>seven</u> mornings a pint at twopence is seven twos	Ba, <u>sei</u> goiz dira, pinta bana eguneko, bi penikean, beraz, zazpi aldiz bi (...) (25. or.)	Ba, <u>zazpi</u> goiz dira, pinta bana eguneko, bi penikean, beraz, zazpi aldiz bi (...) (25. or.)

<sup>25</sup> Ez naiz bila ibili, baina dagoeneko italierazko bat ikusi dut (JOYCE, James (2020). *Ulisse*. [itzul. Mario Biondi], Milan: La nave di Teseo), eta gaztelaniarazko beste bat (JOYCE, James (2022). *Ulises* [itzul. Carlos Manzano], Bartzelona: Navona Editorial), biak ala biak eskarmentu handiko itzultzaileek eginak.

<sup>26</sup> *Ulises* gaztelaniara lehenbizikoz ekarri zuenaren tribulazioen berri jakin nahi duenak irakur beza PETERSEN, Lucas (2016). *El traductor de Ulises*, Buenos Aires: Sudamericana.



(Itzultzailearen deskarguan esan beharra dago esaldi osoa –esnezalearen kontuak egiteko modua– nahasi samarra dela, baina akats hori zuzendu beharra zegoen).

Jatorrizkoa	2015eko edizioa	2022ko edizioa
—I am a servant of two masters, Stephen said, an English and an Italian. —Italian? Haines said. A crazy queen, old and jealous. Kneel down before me.	—Ni bi nagusiren morroi nauk, bada —esan zuen Stephenek—, bata ingelesa eta bestea italiarra. Erregina txoro bat, zaharra eta jeloskorra. Belaunika hadi nire aurrean.	—Ni bi nagusiren morroi nauk, bada —esan zuen Stephenek—, bata ingelesa eta bestea italiarra. —Italiarra? –esan zuen Hainese. Erregina txoro bat, zaharra eta jeloskorra. Belaunika hadi nire aurrean.

Bigarren adibidean Stephenen barne-bakarrizketaren aurreko galdera hori falta da. Ez du garrantzi handirik narrazioan, baina jatorrizkoan hortxe dago.

Horrelakoak saihesteko modu bakarra da episodio bakoitzaren itzulpena bukatutakoan esaldiz esaldi konparatzea. Nik ere hala egin nahi izan nuen, baina itzulpen osoa bukatutakoan. Horretarako prestatu nion Josu Zabaleta adiskideari jatorrizkoaren eta itzulpenaren testu parekatua, Wordfastek edo Tradosek egiten duten modukoa. Berak egin zuen bere lana, baina nik ez, bistan denez. Gero, David Stukins adiskideak hartu lan hori, eta haren lanari esker daude zuzenduak holakoak eta beste asko, batzuk larrixeagoak.

Jatorrizkoa	2015eko edizioa	2022ko edizioa
They broke asunder, <u>sidling out</u> of their benches, leaping them.	Sakabanatu ziren, jarlekuen artetik jauzi eginez aterata.	Sakabanatu ziren, jarlekuen artetik itzalgaizka jauzi eginez aterata.

Hirugarrenean, *sidle out* aditzaren itzulpenean itzalgaizkakotasunaren ñabardura galdu da. Are gehiago, *break asunder* berak ere, banatu, sakabanatu edo bitan banatu zirela adieraz dezake. Hori bi bertsioetan berdin argitaratu da: sakabanatu. Baina ez nago erabat seguru horrela behar duen: hor gelditzen da, beraz, hurrengo baterako.

Esan bezala, bi helburu zituen zuzenketak: okerrak zuzentzea eta badaezpadakoak hobetzea. Zertan hobetu daiteke (beti) *Ulisés*?

1. Hitz-en esanahiaren zehaztasunean. Adibidez, goian ikusitako *sidling out*.
2. Zentzu bikoitzen ebazpenean. *Seachange* («itsasoak eragindako aldaketa» zentzu etimologikoa + aldaketa erabatekoa, itzela (gaur egungo esapide gisa erabilia).
3. Hitz-jokoei emandako irtenbide halamoduzkoetan.

Eta abar eta abarretan.

Hona hemen adibide pare bat:

Jatorrizkoa	2015eko edizioa	2022ko edizioa
<i>What is home without Plumtree's Potted Meat? Incomplete. With it an abode of bliss.</i>	<i>Zer da etxea Plumtree's Haragi ontziraturik gabe? Osatu gabea. Harekin? Zorion betea.</i>	<i>Zer da etxea Plumtree's Haragi potaturik gabe? Osatu gabea. Harekin? Zorion betea.</i>

Hasieratik iruditu zitzaidan itzulgaitza Joycek osatutako «bertso» labur hori. Gainera, *Ulisesen* maiz samar gertatzen denez, *Odisearen* imitazioan edo, 7 aldiz errepikatzen da *potted meat* nobelan zehar. 2015eko edizioan, beharrezkoa iruditu zitzaidan honako ohar hau eranstea:

87.2 **Haragi ontziraturik gabe** Haragia ontziratatu: larrua jo. «To pot one's meat», norberaren haragia besteren ontzian sartu, euskarazko «odolkia eltzean sartu»-ren antzekoa. Ikus 14. episodioan ageri diren Ama Birjinaren letaniako hainbat aipu. *Vas spirituale, vas honorabile, vas insignae devotionis*: Ontzi espirituala, Ontzi agurgarria, Ontzi txit miregarria. Ikus halaber aurrerago, 10. episodioan, adulterioaren definiziotzat ematen den esaldia: *eiaculatio seminis inter vas naturale mulieris*, hazi-isurketa emaztekiaren natura-ontzian, alegia.

2022ko zuzenketa egitean, bururatu zitzaidan *haragi ontziratua* jarri beharrean *haragi potoratua* hurbilago zegoela ingelesezko hitz-joko edo zentzu bikoitzetik: ontziratatu baino hurbilago baitago *potoratu* aditza *potor*, *potota* hitz «zatarretatik».

Potoratu ageri da, beraz, 2022ko edizioan ohar honekin:

87.2 **Haragi potoraturik gabe?** Haragia potoratu: larrua jo (pototaratu, alegia). «To pot one's meat», norberaren haragia besteren ontzian sartu, euskarazko «odolkia eltzean sartu»-ren antzekoa. Ikus 14. episodioan ageri diren Ama Birjinaren letaniako hainbat aipu. *Vas spirituale, vas honorabile, vas insignae devotionis*: Ontzi espirituala, Ontzi agurgarria, Ontzi txit miregarria. Ikus halaber aurrerago, 10. episodioan, adulterioaren definiziotzat ematen den esaldia: *eiaculatio seminis inter vas naturale mulieris*, hazi-isurketa emaztekiaren natura-ontzian, alegia.

Aldaketa hori eginda, aski nuen agian *haragi potota(raturik gabe)* jartzea eta oharra kentzea. Baina iruditu zitzaidan, batetik, esplizitazio hori gehiegizkoa zela, eta, bestetik, ingelesezko esapidearen zehar-adierazpena ez zela gurean oso aise harrapatuko. Beraz, aldaketatxo hori eginda, oharra bere horretan uztea erabaki nuen.

Eta hona beste aldaketa bat, aurreko testua hobetzeko asmoz egina:

Jatorrizkoa	2015eko edizioa	2022ko edizioa
Following the pointing of her finger he took up <u>a leg of her soiled drawers</u> from the bed.	Mollyren behatzak seinalatzen zuenari jarraituz, <u>kulero zikinak hanka batetik</u> helduta hartu zituen ohetik.	Mollyren behatzak seinalatzen zuenari jarraituz, <u>pantaloi zikinak</u> hanka batetik helduta hartu zituen ohetik.

Ez da erraza ulertzen «kuleroen hanka» zer den, guk ezagutu eta ezagutzen ditugunei nekez aurkituko baitiegu «hankarik». Oraingo tangak baino handixeagoak ezagutu ditugu, baina ez galtza luzeen tankerakorik (nik behintzat). Baina *Ulisesen* agertzen diren *drawers* horiek, eranskinetako irudian ageri denez, bazituzten «hankak», edo «zangoak» edo «zangoaldeak». Beraz, bizkaierari omenaldi eginez **pantaloi** hitzera jotzea erabaki nuen, Bizkai aldeko *pantaloi* horiek Irlandako *drawers* delakoen antz handiagoa izango zutelakoan (ez dakit oraindik ere bizkaitarren batzuk kuleroei *pantaloi* esaten jarraituko duten) baina aspalditxoko hitz horri bide eman behar zitzaiola iruditu zitzaidan, Bloom obsesionatzen zutenak irudi horretatik hurbilago daudelakoan.

Bestalde, Mollyk bere monologoan 9 aldiz erabiltzen du hitz hori, eta halako batean zehazten du nolakoak dituen soinean:

Jatorrizkoa	2015eko edizioa	2022ko edizioa
then if he wants to kiss my bottom Ill drag <u>open my drawers</u> and bulge it right out in his face as large as life	beraz ipurdian musu eman nahi badit kuleroak ireki eta aurpegian plantatuko zionat den bezain haundia	beraz ipurdian musu eman nahi badit <u>pantaloiak ireki</u> eta aurpegian plantatuko zionat den bezain haundia

Hor ere, «kuleroak ireki» zer den ulertzen ez da erraza. Beraz, XIX - XX. mende hasierako emakumeen azpiko janzkiei begirada bat emanda, egokia iruditu zitzaidan aldaketa (ikus 5. eranskina).

Horrelako beste aldaketaren batzuk egiten saiatu naiz, eta uste dut 2015ekoa baino testu franko hobea argitara eman dudala oraingoan.

Atal honen izenburuak dioenez, Sisiforen lana da *Ulisesen* itzultzailearena. Esan beharra dut aski pozik gelditu nintzela nire lana 2015ean argitara eman nuenean. *Berrian* argitaratu zen azaleko argazkiko aurpegi alaiari (azal gogorreko eta biguneko edizioak Moisesen Legearen harlauzak bailiran beso banatan hartuta) begiratu besterik ez dago. Handik 6 urtera zuzenketarekin hasi nintzenez iruditu zitzaidan franko hobetzeko modukoa zela orduko testua. Itzulpena beti baldin bada nolabaiteko hurbilketa, are gehiago horrelako lan bihurri baten itzulpena. Horregatik, itzultzaileentzako goiburu olimpiko bat proposatzekotan, *tardius*, *altius*, *propius* (motelago, sakonago, hurbilago) proposatuko nuke, neure buruarentzat behintzat, hemen bezala premia bertute bihurtzen ibili beharrik ez izateko.

Sisiforena ez dela debaldekoa ilustratzeko, hona hemen Mario Biondik bere *Ulisseren* lehenbiziko esaldiaren itzulpenari erantsitako bi ohar:

1. Lehenbiziko atalak **S**tepheni dagokion **S** letrarekin hasi behar zuen (**S**tately), bigarrenak **M**olly (Bloomen) **M**-arekin (Mr Leopold Bloom) eta hirugarrenak **P**oldy (Leopold Bloom)en **P**-arekin (**P**reparatory), zeinak ingelesez izango bailirateke silogismo aristotelikoaren hiru terminoak: *Subject*, *Middle term*, *Predicate*.
2. Martin Gardnerrek dioenez (Gardner 1985), nobelaren hasierako hitzek bere ere S P M letren jokoa gorderik omen dute (*Stately Plump (Buck) Mulligan*). Ez da, hala ere, S M P. Joyce pirotekniazaleak ederki aski idatz zezakeen: Stately, Mulligan, plump, Buck».

Hori diosku Biondi itzultzaile dokumentatuak. Eta *Ulysses Annotated* den bertsio emendatua ere ageri da hori, ez dakigu Gardnerren ikerketaren aurretik edo ondotik. Eta bere itzulpena ekarri du, nola edo hala, ikerkuntza horretatik aintzat hartzekoa iruditu zaiona, izenondo egokiak hautatuz horretarako. Gero, edizio oharduna denez, hor goiko oharrak erantsi ditu.

Statuario, pingue, Buck Mulligan...

Hala ere, Enrico Terrinoni irakasle eta itzultzaile hiperdokumentatuak, 10 urte lehenago, emana zuen itzulpen horixe, hainbeste bortxatu gabe:

Statuario, il pingue Buck Mulligan...

Eta hiru atalen hasierako letrari dagokionez, bi lehenbizikoetan bete du «legea», ez ordea hirugarrenean (edo erdizka).

Nik, noski, horren guztiaren berri jakin gabe, honela eman nuen:

Punpeziatz, Buck Mulligan potoloa...

Beraz, hortxe jarri didate irentsi beharreko beste harri-kozkor bat, nire itzulpenaren hurrengo zuzenketa egiten dudanerako. Agian honelako zerbaitetara jo beharko nuke (xehetasun horiei inolako garrantzirik eman nahi izanez gero):

Soberako **maiestate-punpeziatz** Buck Mulligan potoloak...

edo joko ausarkeria handiagoz areagotuz, honela hasiko litzateke balizko bertsio berria (Mulliganen ezizena manipulatur):

Soberako **maiestate-punpeziatz Sucker Mulligan potoloak**

Ia ziur naiz Joycek berak onartuko lituzkeela akrobazia eta desbideraketa xume horiek.

Dena dela, benetan ziur al dakigu enigma eta bihurrikeria horiek guztiak testuan daudela? Merezi al du horrelako filigranetan aritzeak? Bestela ere aurreragoko lanak badaudela iruditzen zait, nire kasuan behintzat.

Eta hobetze-lana sekula ez dela amaitzen (edo Slotek oharrei buruz dioena parafraseatuz «potentzialki amaiezina dela») erakusteko, pentsa dezagun nola osatua dagoen 14. episodioa (Eguzkiaren behiena) eta 32 autore eta joeraren imitazio edo parodia dagoela bertan, Don Giffordek bere ohar-liburutzarrean eta Frank Budgenek eta Joycek berak bere gutun batzuetan diotenaren arabera.<sup>27</sup> Beste lan pixka bat badago, beraz, 32 parodia modu horien parekoak euskarara ekartzeko modua bilatu nahi duenarentzat. Nire 2015eko bertsioan 9 idazmolderen paretsukoak-edo osatzen saiatu nintzen, aski eta sobra izango zelakoan. 2022ko bertsioan ez dut funtsezko aldaketarik egin, eta grafiaren koherentziari erreparatu diot pixka bat, baina Januskok eta Giffordek identifikatu dituzten 32 mintzamolde horien pareko parodiak egin nahi dituenak badu non saiatua.

## 10. *Ulises* eta *Odisea*

Eta gehiegi luzatzen ari den jardun honekin bukatzeko, itzul gaitezen abiapuntura, *Odiseara*, alegia.

Hau idatzi zion Joycek bere izeba Josephineri 1921ean, *Ulysses* irakurtzea zaila zela-eta kexatu zitzaionean. Joycek hainbat kontsulta eginak zizkion izebari *Ulises* idazten ari zela. Esate baterako, 17. episodioa osatzen ari zela (Bloomek eta Dedalusek giltzarik gabe Eccles Streeteko etxean sartzeko hesi gainetik salto egin beharra zeukaten), galdetu zion ea salto egin ote zitekeen hesi haren gainetik muturra hautsi gabe. Holako galderak egiten zizkion izebari, beti xehetasun eta zehaztasun bila.

<sup>27</sup> HASTINGS, Patrick (2022). *The Guide to James Joyce's Ulysses*, Baltimore: Johns Hopkins University Press. Hemen ikus daitezke 32ak: <https://www.ulyssesguide.com/14-oxen-of-the-sun>

Hala, aholku hau eman zion Joycek: «*Ulises* irakurri behar baduzu, hobe duzu aurretik Homeroren *Odisearen* prosazko itzulpen bat eskuratu edo liburutegiren batetik maileguan hartzea».

Linatiren edo Stuart Gilberten eskemei begiraturaz gero, laster jabetuko gara paralelismoez (*Odiseako* zein heroi edo pertsonaia dagokion *Ulyssesko* halako edo halako pertsonaiari, *Odiseako* zein pasarteri dagokion *Ulyssesko* episodio bakoitza) edo beste hainbat parekotasunez: Irlanda irla bat da, Itaka bezala; itsasoak garrantzi izugarria du bai Grezian eta bai Irlandan; ibaiak ere leku handia dute bi herrialdeetan. Euskarazko *Ulisesen* edizioan aurki ditzake xehetasun gehiago nahi dituenak.

Hala ere, nahitaezkoa al da *Odisearen* ezagutza sakona *Ulysses* itzultzeko? Zertan da baliagarria itzultzailearentzat *Odisea* irakurtzea? Nire ustez, ez dio inolako kalterik egingo Homeroren maisulan hori ondo ezagutzeak edo itzulpenari ekin aurretik –edo ari den bitartean– irakurtzeak. Zertarako den baliagarria? Bereziki, *Ulisesen* planteamendu orokorra ulertzeko, ez hainbeste testua itzultzeko. Alde horretatik, beste nonbait aurkitu beharko du laguntza, edo baliabideak (ikus 6. eranskina).

Esan beharra dago *Ulises*, edukiari dagokionez, *Odisea* alderantzikatua dela. Izan ere, Homeroren maisulana Peneloperen fideltasunaren gorazarrea da, besteak beste, eta *Ulisesen*, berriz, justu alderantzizkoa aurkituko dugu: senarrari adarrak jarri dizkion emakumearen monologo paregabea. Gogora dezagun, bestalde, Troiako gerra, zeinarenatik utzi baitzuen *Ulisesek* Itaka, beste adarkada baten ondorio izan zela (Helenak senarra utzi eta Paris printze troiarrarekin ihes egin –edo hark bahitu– zuelako, alegia).

Joycek egiten duen alderantzikatze hori ez dagokio edukiari bakarrik, baizik eta epikaren beraren planteamendu osoari eta baita beste zenbait alderdi formali ere. Pixka bat zehaztearren, esan dezagun *Ulises* heroiaren ezaugarri nagusia «maltzurkeria» dela (trebetasuna, jirabuelta askoko gizona izatea, baliabide ugarikoa eta jukutria-asmatazailer berdingabea). Horrelakoak dira heroiari egotzen zaizkion ezaugarriak, eta haren balentriarik handiena Troia mendean hartzeko zurezko zaldia trikimailua asmatu, prestatu eta burutu izana. Eta zein da Leopold Bloomen «maltzurkeriarik» aipagarriena? Maitale bat bereganatzeko darabilen ezkutuko gutun-trukea. Horretara mugatzen da haren epika gutzia. Bloomen zuhurtzia eta buru-argitasuna –*Ulisesena* bezala– nobela osoan nabarmentzen dira, ez ordea inolako epikarik haren jokabidean.

Formari dagokion beste alderdi bat ere aipatu behar da hemen: epiteto homerikoarena. Bai *Iliadan* eta bai *Odisean* jainkoek, heroiak eta izaki pertsonifikatuek atxikia izaten duten adjektibo bat da, izenari ezaugarri bereizgarria ematen diona. Barra-barra aurkitzen ditugu holakoak Homeroren epopeietan. Esan daiteke, jainkoen edo heroiaren deskribapenaren orde, hori dela haiek izendatzeko modua, izenari beti «deitura» edo «goitizen» bat erantsi beharko balitzia bezala. Hala, Zeus «egidaduna» edo «egida-eramailea» dugu; Akiles, «hankarina»; *Ulises*, «maltzurra»; Penelope, «txit zuhurra»; Menelao, «ile-horia». Edo Egunsentia «hatz gorrixkaduna» zen (hori izaten zen *Iliada* itzultzen hastean aurkitzen genuen adibiderik ezagunena). Baina deitura horiek pilatu ere egin daitezke, eta horrela *Ulises* «Zeusen-jatorriko-Laertesena seme baliabide-ugarikoa» bihurtuko zaigu. Aski dugu *Ulisesko* Ziklopearen episodiora jotzea (12.a) eta tabernazuloko txoko batean dagoen pertsonaia

(«Herritarra» = Ziklopea, alegia) nola dagoen deskribatua ikustea, ohartzeko noraino eramana dagoen Joyceren parodia.

Izakia harri handi baten gainean zegoen eserita, dorre borobil baten oinean: heroi bizkarzabal bat zen, bular-azkar zango-sendo begi-xalo ile-gorri orizta-ugari bizar-nahasi aho-zabal sudur-zapal buru-luze ahots-sakon oin-huts esku-nabar zango-iletsu musu-gorri beso-zaildua. (315. or.)

Estilo berezi hori, antza, berezko bihurtu zitzaion Joyceri, zeren ikusi dugu lehentxeago zer idatzi zion F. Bugden adiskideari gutun batean Molly Bloomi buruz: «emakume zeharo sanao bete-betekoa amorala ernalgarria ez-fidagarria erakargarria azkarra mugatua zuhurra soraioa iruditzen zait niri».

Eta, Ziklopeaz ari garela, gogora dezagun Ulisesen maltzurkeria handienetako bat, bere burua Inor-izendatzearena, baliagarri izan zitzaiola munstro hartaz libratzeko. Esan daiteke *Ulisesen* ezaugarrietako batek, hitz-jokoen ugaritasunak, hori izan zuela aurrekari nabarmena. Hori, eta Shakespeareren hitz-jokorako zaletasuna, ez baitzen makala.

Ez da alferrikakoa izango gogoraraztea *Odisearen* oihartzunak hasi lehenbiziko episodiotik eta azkenekoraino aurkituko ditugula *Ulisesen* (betiere pertsonaiaien jarioari egokiturik). Lehenbiziko episodioan berehala harritzen gaitu *epi óinopa ponton* (itsaso ardo-kolorean) edo *ómphalos* (zilbor) aurkitzeak. Baina *Odisean* bertan ere halaxe agertzen da, lehen episodioan (eta gero beste hainbat aldiz). Ez da harrigarria Buck Mulligan grekozalearen edo Stephenen ahotik holakoak ateratzea, baina are Mollyk, bide bihurrixegotik, Opisso andrea aipatuko du bere monologoan, deitura italiarra, baina ezin ahaztu *opisso* hitzak *ondoren* esan nahi duela grekeraz. Eta Molly izena bera ere grekerazko *moly* (Hermesek Ulisesi ematen dion belar magikoa) hitzarekin lotua dela nahitaez.

Beraz, *Ulisesen* behin eta berriz agertuko zaizkigu *Odisearen* oihartzunak, eta itzultzaile zentzudunak komenigarria du *Odisea* bere irakurketetan sartzeari dokumentazio fasean. Ez da dudarik lagungarri izango zaiola, eta *Ulises* hobeto ulertzen lagunduko diola, baina hori baino gehiago beharko du itsaso arriskuz betetako horretan barrena Itakara (onik edo) iristeko.

Dena dela, *Ulisesen* eta *Odisearen* arteko konparaketak saiakera luze baterako gaia ematen du, eta, irakurlea gehiegi ez nekatzearren, hemen utziko dugu, oraingoz.

## 11. Bukatzeko edo

*Ulisesen* mendeurreneko berrargitalpenari egindako oharrean, esan nuen *Ulisesen* itzultzailearen sufrikarioak ez zirela bukatzen itzulpena bukatzearekin batera. Sisifo bezala kondenatua dela behin eta berriz harrizarra mendi-gailurrera igo, eta hura mendian behera eroritakoan berriro gorantz bultzaka abiatzera. Eta gehitzen nuen horren arrazoia zela: «*Ulisesen* itzulpenak beti izango direla behin-behinekoak. Baita hau ere».

Arrazoi asko aipa litezke horretarako, baina, hasteko, jatorrizkoa bera mende batean «zuzentzen» aritu baziren Joyce bera (eta hainbat bultzagile hura bizi zelarik) eta hainbat aditu gaur arte, eta horretan ere erabateko adostasunik ez badago, zer esan testuaren interpretazioez? Etengabe argitaratzen dira tesiak, ikerketak, artikuluak eta abar *Ulisesen* halako edo halako hainbat esaldi, atal edo joeraren esanahia argitzen dutenak. Eta horien guztien berri



izatea ezinezkoa da. Artikulu honetan bertan aipatu dut *Semiotica* aldizkarian agertutako ikerketa, eta (segur aski) zer ondorio izan zituen Terrinoniren eta Biondiren itzulpenetan. Eta nik, hori jakin eta aintzat hartzea erabaki banu, zer egingo nukeen. Baina ez dut horren berri izan oraintsu arte, eta kasualitate hutsez, Biondiren itzulpenaren lehenbiziko oharrei begirada bat ematea bururatu zitzaidalako.

Beti pentsatu dut itzulpenak beti hobetu daitezkeela (nireak behintzat), eta uste dut garbi samar ikusi dugula *Ulisesenak* (edozein hizkuntzatakoak) hobetzeko modukoak direla gehien-gehienak. Horrez gain, azaldu ditut 2015eko edizioan ageri ziren zenbait akats eta etsi-etsian emandako hainbait irtenbide, eta zuzendu edo hobetu ahal izan ditudala (batzuk) 2022koan. Are gehiago, tarteka hortxe bertan eman dut hurrengo edizio (balizko) batean nik edo beste norbaitek punturen bat edo beste hobetzeko moduren bat.

Eta Joyceri berari azkeneko momentuan «atzaparkadaka kentzen bazizkioten eskuetatik inprimategiko probak», eta hala ere ez bazen sekula erabat asebetterik gelditzen idatzitakoarekin, zertan gelditu behar du lasai itzultzaileak?

Ea, ba, 2015eko eta 2022ko edizioak Joyceren heriotzaren mendeurrenerako (edo lehenago) agortuak diren, eta beste edizio berritu baterako aukera dudun/dugun/duzun/duzuen/dagoen. Hala biz.

## 1. Eranskina – Is there Gaelic on you?

Hona hemen pasarte osoa:

—Do you understand what he says? Stephen asked her.  
—Is it French you are talking, sir? the old woman said to Haines.  
Haines spoke to her again a longer speech, confidently.  
—Irish, Buck Mulligan said. **Is there Gaelic on you?**  
—I thought it was Irish, she said, by the sound of it. Are you from the west, sir?  
—I am an Englishman, Haines answered.  
—He’s English, Buck Mulligan said, and he thinks we ought to speak Irish in Ireland.  
(*Ulysses* 1.424-32)

—Ulertzen duzu zer esaten ari zaizun? —galdetu zuen Stephenek.  
—Zer hizkuntzatan ari zara, jauna, frantsesez? —esan zion amonak Hainesi.  
Hainesek berriro hitz egin zion emakumeari, berbaldi luzeagoa oraingoan, konfiantzarekin.  
—Irlanderaz —esan zuen Buck Mulliganek—. **Gaelikoa barnean duzu?**  
—Irlandera zela pentsatu dut —esan zuen emakumeak—. Soinuarengatik. Mendebaldekoa al zara, jauna?  
—Ingelesa naiz —erantzun zuen Hainesek.  
—Ingelesa da —esan zuen Buck Mulliganek—, eta uste du Irlandan irlanderez hitz egin beharko genukeela.  
(*Ulysses*, 24-25)

Ohargileen azalpenak:

**Is there Gaelic on you?** - A west-of-Ireland, peasant **colloquialism** for “Can you speak Irish?” (Gifford)

**Is there Gaelic on you?** An over-literal but incorrect translation of the Irish expression *An bhfuil Gaeilge agat?* A more accurate, but still over-literal translation would be ‘Is there Irish at you?’ In other words, ‘Do you speak Irish?’ (Sam Slote)

Itzulpenak:

–Connaissez-vous le gaélique? (Morel)  
–Est-ce que le gaélique est dans vos cordes? (Aubert)  
Oharra: dans les cordes (*adv*): apte, compétent  
–¿Comprende algo el gaélico? (G. Tortosa-Venegas Lagüens)  
–Lo parla, lei, un po’ di gaelico? (Terrinoni)  
“Ha un po’ di gaélico, lei?” (Biondi)  
Oharra: Espressione dell’Irlanda contadina dell’ovest, nel senso di “Parla irlandese?”  
–Nichts mit Gälisch bei Ihnen? (Hans Wollschläger)

Bi kontu, komentatzeko. Gifford ohargileak **lagunarteko hizkera** besterik ez du ikusten esapide horretan. Sam Slotek argiago uzten du bitxikeria horren iturria **irlanderatiko hitzez hitzeko itzulpen** badaezpadako bat dela. Eta itzulpenetan, berriz, ikusten da itzultzaile bakoitzak nolako garrantzia eman dion jatorrizkoaren bitxitasun horren ordainean nolabaiteko ñabarduraren bat eransteari ala ez.

## 2. Eranskina – Molly Bloomen monologoa

### 1. Molly Bloomen monologoaren puntuazioa berrezartzea

Hona hemen Molly Bloomen monologoaren bi zati, neronek gehitutako puntuazio-zeinuekin. Puntuazioa, ikusten denez, ez da oso zehatza, testua ahalik eta ondoen interpretatzeko egokiak iruditu zitzaizkidanak baizik ez nituen jarri. Testua ulertzea zen helburua. Puntuazioa jartzearena bururatu zitzaidan irakurri nuenean *Ulysses* frantseseratu zuen lehen itzultzaileak, Aguste Morelek, frantses irakurleak kontuan hartuz, bakarrizketaren itzulpena «**falta ziren**» **zeinu guztiakin ederki puntuatua aurkeztu ziola Joyceri!!!** Beste gauza batzuetan Joyceren joera oso bestelakoa bazen ere (Stephen Dedalus Étienne Dédale gisa itzultzeak ez omen zion batere minik eragingo begietan), Morelen soluzioa ikusita, aise imajina dezakegu bere buruaz beste egiteko puntuan. Testuaren itzulpenaren lehen faserako, ordea, oso baliagarria gertatu zitzaidan niri.

Yes. Because he never did a thing like that before, as ask to get his breakfast in bed with a couple of eggs since the City Arms hotel, when he used to be pretending to be laid up, with a sick voice doing his highness, to make himself interesting for that old faggot Mrs Riordan, that he thought he had a great leg of, and she never left us a farthing, all for masses for herself and her soul... greatest miser ever... was actually afraid to lay out 4d for her methylated spirit... telling me all her ailments... she had too much old chat in her about politics and earthquakes and the end of the world. Let us have a bit of fun first, God help the world if all the women were her sort... down on bathingsuits and lownecks... of course nobody wanted her to wear them. I suppose she was pious because no man would look at her twice. I hope I'll never be like her. A wonder she didn't want us to cover our faces, but she was a well educated woman certainly, and her gabby talk about Mr Riordan here and Mr Riordan there...

Eta hona hemen beste zati bat, apostrofeak desagerraraziak dituen:


only hed do a thing like that, all the same on account of me and Boylan, thats why he did it, Im certain, the way he plots and plans everything out... I couldnt turn round with her in the place lately, unless I bolted the door, first gave me the fidgets coming in without knocking first... when I put the chair against the door, just as I was washing myself there below with the glove... get on your nerves then doing the loglady all day... put her in a glasscase with two at a time to look at her... if he knew she broke off the hand off that little gimcrack statue, with her roughness and carelessness, before she left, that I got that little Italian boy to mend so that you cant see the join for 2 shillings... wouldnt even teem the potatoes for you... of course shes right not to ruin her hands... I noticed he was always talking to her lately at the table, explaining things in the paper, and she pretending to understand... sly of course, that comes from his side of the house... he cant say I pretend things, can he?

### 2. Mollyk bere buruari toka ala noka egingo zion erabaki baino lehen

inongo gizonek sekula bi aldiz begiratu ez ziolako zu(n)an elizkoia nik uste ez ahal nauk/n sekula béra bezalakoa izango harritzekoa gure aurpegiak estaltzea nahi ez izatea baina jantzia zu(n)an emakumea dudarik gabe eta aze kalaka ematen ziguna (...) hala ere estimatzen zio(n)at nere gizon honi hain edukazio onekoa izatea holako emakume adinekoekin eta zerbitzariekin eta are eskaleekin ez baita batere harroa ezertan ez beti

ordea inoiz benetan ezer seriorik izanez gero hobe izaten ditek/n ospitalera joatea han dena garbi egoten baita baina hilabetez ari beharko nitek/n alamenaren ematen

### 3. Eranskina – Meza beltza



### 4. Eranskina – Intsentsarioa eta intsentsu-ontzia







## 5. Eranskina – Pantaloiak

Pantaloiak



Pantaloiz zirrikitudunak



## 6. Eranskina

*Ulises – Odisea* paralelismoei buruz, beti aipatu izan da parekotasun orokor bat, pertsonaia nagusien artekoa:

TELEMAKO – ULISES – PENELOPE
STEPHEN DEDALUS – LEOPOLD BLOOM – MOLLY BLOOM

Hona hemen aurten gai hori buruan nerabilela bi liburuen I. episodioa xeheago aztertuz osatu nuen taula:

ODISEA I.	ULISES I
Musari eskaria	Mezako sarrera: <i>Introibo ad altare Dei</i>
Jainkoen Batzarra	Hirutasun lurtarraren batzarra (STEPHEN – MULLIGAN – HAINES)
Atena hegan Telemakori laguntzera	Amona xaharra esnea ekartzera
Etxeko egoeraz kexu Telemako	Irlandako egoeraz kexu hirutasuna
Bere etxearen jabe izan nahi	Burujabetasuna nahi: hizkuntza
Itaka	Irlanda
OGIGIA IRLA = Ómphalos	MARTELLO DORREA = Ómphalos
UMEZURZTASUNA Telemako umezurtz (aita joana)	AMA LURRA / AMA ITSASOA Stephen Dedalusen ama hil berria

Dena dela, bistan da ez dagoela erabateko korrelaziorik *Odisearen* eta *Ulyssesen* gertaeren edo episodioen artean. Joycek nahi zuena hartu zuen *Odiseatik*, eta bere nobela osatzeko nahi zuen bezala erabili.



## BIBLIOGRAFIA

### ***Jatorrizkoa eta Joyceren beste lanak***

- JOYCE, James (1986). *Ulysses. The corrected text*. Hans Walter Gabler, Londres: Bodley Head.
- \_\_\_\_\_ (1993). *Ulysses. Edited with an introduction by Jeri Johnson*, Oxford: Oxford University Press.
- \_\_\_\_\_ (2012). *Ulysses. Based on the 1939 Odyssey Press Edition, with annotations by Sam Slote*, Richmond: Alma Classics.
- \_\_\_\_\_ (2012). *Ulysses. Remastered by Robert Grogan*, Co. Mayo (Ireland): Music Ireland Publications.
- JOYCE, James (1914). *Dubliners*, Londres: Grant Richards Ltd. Publishers.
- \_\_\_\_\_ (1916). *A Portrait of the Artist as a Young Man*, New York: B. W. Huebsch.

### ***Itzulpenak***

- JOYCE, James (1992). *Artistaren gaztetako portreta* [itzul. Irene Aldasoro], Euba: Ibaizabal.
- \_\_\_\_\_ (1999). *Dublindarrak* [itzul. Irene Aldasoro], Irun: Alberdania.
- \_\_\_\_\_ (2015). *Ulises* [itzul. Xabier Olarra], Iruñea: Igela.
- \_\_\_\_\_ (2022). *Ulises. Mendeurreneko edizioa* [itzul. Xabier Olarra], Iruñea: Igela.
- \_\_\_\_\_ (1945). *Ulises* [itzul. José Salas Subirat], Buenos Aires: Santiago Rueda Editor.
- \_\_\_\_\_ (1976). *Ulises* [itzul. José María Valverde], Bartzelona: Lumen.
- \_\_\_\_\_ (1999). *Ulises* [itzul. Francisco García Tortosa eta María Luisa Venegas Lagüéns], Madril: Cátedra.
- \_\_\_\_\_ (2015). *Ulises* [itzul. Marcelo Zabaloy], Buenos Aires: El Cuenco de Plata.
- \_\_\_\_\_ (2017). *Ulises. Traducción, introducción y notas de Rolando Costa Picazo*, Buenos Aires: Edhasa.
- \_\_\_\_\_ (2022). *Ulises* [itzul. Carlos Manzano], Bartzelona: Navona Editorial.
- \_\_\_\_\_ (1929). *Ulysse. Traduction intégrale par Auguste Morel, assisté de Stuart Gilbert entièrement revue par Valery Larbaud et l'auteur*, Paris: Gallimard.
- \_\_\_\_\_ (2004). *Ulysse. Nouvelle traduction sous la direction de Jacques Aubert*, Paris: Gallimard.
- \_\_\_\_\_ (1927). *Ulysses* [itzul. Georg Goyert], Basel: Rhein-Verlag (1930ean berritua).
- \_\_\_\_\_ (1975). *Ulysses* [itzul. Hans Wollschläger], Frankfurt/M: Suhrkamp.
- \_\_\_\_\_ (1960). *Ulisse*. [itzul. Giulio De Angelis], Segrate: Mondadori.
- \_\_\_\_\_ (1995). *Ulisse*. [itzul. Bona Flecchia], Florentzia: Shakespeare and Company.
- \_\_\_\_\_ (2012). *Ulisse*. [itzul. Enrico Terrinoni & Carlo Bigazzi], Erroma: Newton Compton.
- \_\_\_\_\_ (2013). *Ulisse*. [itzul. Gianni Celati], Torino: Einaudi.
- \_\_\_\_\_ (2020). *Ulisse*. [itzul. Mario Biondi], Milan: La nave di Teseo.

### ***Lagungarriak***

- BOWEN, Zack R. (1974). *Musical Allusions in the Works of James Joyce*, Albany (New York): State University of New York Press.
- BUDGEN, Frank (1934). *James Joyce and the Making of Ulysses*, Londres: Grayson & Grayson.
- ELLMANN, Richard (1959). *James Joyce*, New York: Oxford University Press.

- \_\_\_\_\_ (1992). *Selected Letters of James James Joyce*, Londres: Faber and Faber.
- GARDNER, Martin (1985). "The Puzzles in Ulysses", *Semiotica* 57 (3-4), 317-330. or.
- GIFFORD, Don (1967). *Notes for Joyce: "Dubliners" and "A Portrait of the Artist as a Young Man"*, New York: Dutton.
- GIFFORD, Don & SEIDMAN, Robert J. (1974). *Ulysses Annotated*, Oakland: University of California Press.
- GILBERT, Stuart (1930). *James Joyce's Ulysses: A Study*, Londres: Faber and Faber (Bada gaztelaniaz ere, Manuel de la Escalera itzulia, Juan Beneten hitzaurrearekin).
- \_\_\_\_\_ (1957). *Letters of James Joyce*, Vol. I., New York: Viking Press.
- JANUSKO, Robert (1983). *The Sources and Structures of James Joyce's "Oxen"*, Ann Arbor (Michigan): UMI Research Press.
- MADDOX, Brenda (1989). *Nora: A Biography of Nora Joyce*, Londres: Minerva.
- \_\_\_\_\_ (2000). *Nora: The Real Life of Molly Bloom*. Boston: Houghton Mifflin.
- PARTRIDGE, ERIC (1937). *A Dictionary of Slang and Unconventional English*, Londres: Routledge.
- SAINTSBURY, George (1912). *History of English Prose Rhythm*, Londres: MacMillan and Co.
- SLOTE, Sam & MAMIGONIAN, Marc A. & TURNER, John (2022). *Annotations to James Joyce's Ulysses*, Oxford: Oxford University Press.
- THORNTON, Weldon (1982). *Allusions in Ulysses*, Chapel Hill: University of North Carolina Press.

### Gehigarriak

- ARESTI, Gabriel (1983). *T.S. Eliot euskaraz*, Donostia: Hordago.
- BRADLEY, John. *Survival Irish words collected from John Bradley*  
<https://sixtownsni.co.uk/culture/the-legacy-of-the-irish-language/survival-irish-words-collected-from-john-bradley/> (Kontsulta: 2022-12-01)
- BROOK ALEXANDER, John (1991). *Is there Gaelic on you?: Joyce's use of Irish Gaelic, Hiberno-English, and Anglo-Irish in A Portrait of the Artist as a Young Man and Ulysses*, Chapel Hill: University of North Carolina Press.
- COLEMAN, Clan. *Irish English & the rest*  
<https://www.colemans.net.au/irishenglish-74182/page2.html> (Kontsulta: 2022-12-01)
- HOMERO (1951). *Odisea* [itzul. Luis Segalà i Estalella], Buenos Aires: Espasa Calpe.
- HOMERO (1985). *Odisea* [itzul. Santi Onaindia], Donostia: Euskerazaintza.
- IZAGIRRE, Koldo (1976). *Zergatik bai*, Donostia: Haranburu.
- JOYCE, P. W. (1910). *English As We Speak It in Ireland*, Londres & Dublin: Longmans, Green & M. H. Gill & Son.  
<https://www.gutenberg.org/files/34251/34251-h/34251-h.htm> (Kontsulta: 2022-12-01)
- LÁZARO, Luis Alberto & MORALES LADRÓN, Marisol (1994). «Técnicas narrativas en James Joyce y Luis Martín-Santos: Estudio comparativo de "Ulysses" y "Tiempo de Silencio"» in *Joyce en España (I)*, A Coruña: Universidade da Coruña.  
<https://ebuah.uah.es/dspace/bitstream/handle/10017/6931/T%c3%a9cnicas%20Narrativas.pdf?sequence=1&isAllowed=y> (Kontsulta: 2022-12-01)
- SARASOLA, Ibon (1975). *Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza*, Donostia: Kriselu.
- URKIZU, Patri (1975). *Sekulorun sekulotan*, Donostia: Kriselu.
- PETERSEN, Lucas (2016). *El traductor de Ulises*, Buenos Aires: Sudamericana.
- ZINGG, Gisela (2005). "Hiberno-English in Joyce's *Ulysses*", *SPELL* 17, 195-206. or.  
<https://www.e-periodica.ch/digbib/view?pid=spe-001%3A2005%3A17#12> (Kontsulta: 2022-12-01)